



Kantuz sortu, kantuz bizi



Ekom, masaje eta naturopatia zentro berria, Elgoibarren

Igor Ezpeleta

Masajista naturopata - 4.900 zb.



Ekom masaje eta naturopatia zentroa inauguratuko du abenduaren 1ean Igor Ezpeletak Elgoibarren, Uparitzaga kaleko 10. zenbakian, baina hasita dago orduak ematen. Era askotariko teknikak eskaintzen ditu, gorputzaren oreka naturala bilatzeko.

◆ **Kontaguzu, Igor, zein den orain arte egin duzun bidea.**

Alor ezberdinetan jardun izan naiz lanean, baina beti erakarri nau mundu honek eta urteak eman ditut bereziki naturopatian eta teknika osteopatikoean formatzen. Etengabeko prestakuntza edo etengabeko ikaskuntza da gurea, eta orain ere ari naiz teknika ezberdinetan sakontzen. Urteak eman ditut besteen zentroetan lanean, pilatu dut eskarmentua, eta orain, neure zentroa zabaldu dut. Elgoibar aukeratu dut horretarako, Etxebarrin bizi naizelako, Elgoibarko mugatik gertu, eta abenduaren 1ean

inauguratuko dut zentroa, 18:00etan. Gonbidatuta zaudete denok! Hala ere, hasita nago lanean eta ordua hartu nahi duenak bi aukera ditu horretarako: telefonoa (641 223 211) edota posta elektronikoa (ekom.osasuna@gmail.com).

◆ **Zer da eskaintzen duzuna?**

Masaje terapeutikoak ematen ditut, eta baita kirol-masajeak ere, lesioak prebenitzeko eta esfortzu handiak egitean kaltetu zaizkigun ehunak bere onera ekartzeko. Era berean, teknika osteopatikoa pediatrikoak eta erraietako terapia nahiz terapia kraneosakrala ere erabiltzen ditut, gure gorputzeko ordena eta oreka berreskuratzeko. Honetan formatu aurretik neu ere joaten nintzen batera eta bestera masajeak hartzera edota osteopatia zerbitzuak hartzera, eta konturatuta nengoen batzuetan, ostera batzuk eginda, momentuko mina kentzen zidatela, baina ez zutela jotzen min horren jatorrira, eta denborara, berriz agertzen zela mina. Mina zerk sortu duen jakitea da, baina, hemen garrantzitsuena; gure gorputza bere osotasunean ulertzea, eta osteopatia psikologikoan asko landu dudana kontua da hori.

◆ **Aipatu duzun guztitik terapia kraneosakralak deitu digu atentzioa bereziki. Zertan datza?**

Garezurreko eta sakroko zenbait gunetan, hau da, bizkarrezurraren beheko aldean, masaje espezifikoak aplikatzean oinarritzen da garezurreko terapia. Denak moduan, oreka bat bilatzen du. Kontsultan izan nuen ume baten kasua datorkit burura: buru luzexka ikusten nion umeari eta jabetu nintzen, buruko zati bat blokeatuta zuela eta ondorioz burmuina atzerantz ari zitziola hazten, hezurdura horren barruan. Blokeo horrek, jakina, eragina zuen bere gaitasunetan. Teknika kraneosakralak lagungarri dira halako eta antzeko beste kasu batzuetan.

 <p>masajea eta naturopatia</p>	<p>Igor Ezpeleta Masajista Naturopata 4900 Zb.</p>			<p>Zabalik gaude baino zurekin ospatu nahi dugu Laster Inaugurazioa Abenduak 1 / 18:00tan. Zatoz gu ezagutzera!</p>
<p>Uparitzaga 10, Elgoibar 641 223 211</p>	<p>Masaje terapeutikoa eta kiroletakoa Pediatriko teknika osteopatikoa, estrukturala, erraien teknikak, kraneosakrala...</p>			

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

Haurrak sare sozialen parte



***"Emakume horrek
haurraren inguruko
bideo eta eduki asko
igotzen ditu bere profileran"***

Jarraitzaile asko dituen eduki sortzaile batek orain dela bizpahiru egun igotako bideo batek hainbat galdera eginarazi dizkit nire buruari. Emakume horrek bere haurraren inguruko bideo eta eduki asko igotzen ditu bere profileran, eta ondorioz, umea milaka eta milaka pertsonek ezagutzen dute.

Igotako argitalpen batean honako istorioa kontatzen zuen: udaran, hondartzan zegoela eguzkia hartzen eta bat-batean, emakume bat gerturatu zitzaioela bere, umea ezezagun batekin zegoela esanez. Influencerrak harrituta erantzun zion emakumeari eta esan zion haurra ondo zainduta zegoela eta "ezezaguna" bere lehengusina zela.

Eduki sortzaileak kontakizuna ikuspegi positibo eta polit batetik kontatzen zuen; baliteke bere lana hori izatea eta aldi oro publikoaren aurrean aurpegi ona erakusteko premia izatea, baina nire buruan, istorioak ez zuten horrelako eragin atsegina izan.

Norbere haurra edozeinek ezagutzea baliteke momentu puntual batean onuragarria izatea eta ume hori gauza txarretatik babestuta egotea, baina, modu bertsuan, baliteke horrek alderdi tristeak ere izatea, eta norbaitek haurraren kontura "negozioa" egin nahi izatea. Bestalde, zer gerta daiteke ume horrek 18 urte betetzen dituenean eta gurasoek bere bizi osoa "saldu" dutela ikusten duenean eta gustatzen ez bazaio?

Baliteke gaur egun oraindik honako gai hau arazo bezala ez ikustea; sareetan hazten ikusi ditugun haur gutxi baitira jada adin nagusikoak, eta zorionez, oraindik ez zaiolako ezer larria gertatu sareetan ezaguna egin den haur horietako bakar bati. Nola nahi ere, uste dut gai honi ez zaiola ematen behar beste garrantzi, eta oraindik irtenbide zehatzik ez dagoen arren gertaera hauei aurre egiteko, uste dut poliki-poliki egoerak izan dezakeen larritasunaren kontziente izaten hasi behar garela.

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Mila esker

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahiko nizkieke Almaur elkarteari eta Bidegin elkarteko Izaskun Andonegiri, astelehenerako Elgoibarren antolatu zuten saioa oso interesgarria izan zelako. Suizidioari eta sufrimenduari buruzko hitzaldia izan zen, eta hara bildu ginenok konfiantzazko espazio goxo eta errespetuzkoa topatu genuen, gai horien inguruan sentitzen duguna konpartitzeko. Berezia izan zen astelehenekoa, eta horregatik, eskerrik asko, bai antolatzaileoi eta baita hara batu zineten gainerako lagun guztioi ere.

G.L.

Mila esker

Mendaroko Odol Emaileen Elkartetik gure esker ona agertu nahi dizuegu joan zen ostiralean odola emateko asmoz gerturatu zineten guztioi. 62 odol emaile izan zineten guregana hurbildu zinatean eta 57k eman ahal izan zenuten odola. Mila esker guztioi. Eskerrik asko, era berean, Bizi Poza txarangakoei, Santa Zeziliaren omenezko kalejiran geldialdia egin zutelako ikastola parean, han geundenon gozamenerako.

Mendaroko Odol Emaileen Elkartea

Oharra

Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba orokor feministarako deia egin du azaroaren 30erako, eta Elgoibarko Izarrako langileok erabaki dugu bat egitea deialdiarekin; bat egitea zaintza eskubide kolektiboaren aldeko aldarriarekin. Egun horretan, beraz, Elgoibarko Izarrako bulegoa itxita egongo da eta lanuzteak eragina izango du gure proiektuetan. Azaroaren 30ean, baina, egitekoak diren mobilizazioen jarraipena egingo dute gure kazetariak.

Gogoratu, hori bai, datorren asteko BARREN aldizkarian zerbait argitaratu nahi izanez gero, martitzen eguerdirako bidali behar duzuela gure erredakziora.

BARREN



XX.URTEURRENA
Lorea Etxabe Azkue
2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

Edur zurittan hazittako lore gorrixa ziñan. Urtu eraitten zendun inguruko hotza, eta bedarra hazi erain.	Ez dogu gehixago zure berua igarriko, baiña hementxe gerauko da zure arnasiaz aztarnia, botatako sustraixen gaiñian.
---	---

Zure familia eta lagunak

Balorazio positiboa egin dute ostalariek bigarren aste gastronomikoaz

Aizu! ostalarien elkarteak bigarren urtez antolatu du mikologian oinarritutako aste gastronomikoa eta pozik agertu dira ekimenak herrian izan duen harrerarekin. Joan zen astean pintxopote berezia egin zuten elkarteko tabernetan. Aurten 11 tabernetan jarri zituzten perretxikoekin egindako pintxoak, eta ostalarien elkarteko arduradunek azaldu dutenez, giro ona egon zen tabernetan eta, oro har, kritika onak jaso zituzten pintxoek.

Barikuan, berriz, kaleak eta auzoak musika elektronikoz bete zituzten, *Erritmoaren ibilbidea* ekimenarekin. "Gazteak euren lokaletatik irten zitezela nahi genuen, eta lortu genuela uste dut, kaleak gaztez beteta egon baitziren bariku iluntzean. Herriko bederatzi DJ-k giro aparta jarri zuten". Zaturako antolatu zuten Aste Gastronomikoko egun handia. Eguerdian Niala magoa eta beste sei mago gazte tabernaz taberna ibili ziren, bezeroei magia saioak eskainiz, eta arratsaldean rockak hartu zituen kaleak. Herriko kaleak kalejiran zeharkatu zituen



Rockalean taldeak, talde ezagunen kantuen bertsioak joz. "Giro aparta sortu zuten", esan dute Aizu! elkartetik. Gauean EuskalRock taldeak kontzertua eman zuen Maalan Barricada, RIP eta Kortatu taldeei gorazarre eginez. "Giro aparta sortu zuten, baina hogeit hamar minutuko atzerapenarekin hasi zuten kontzertua, eta iragarrita zegoena baino beranduago bukatu zuten bizilagun batzuek kexa jarri zuten Udaltzaingoa. Barkamena eskatzen diegu".

Bazkide kanpaina hasiko du Baso Biziak Taldeak

Elgoibarko Baso Biziak taldeak 100 bazkidek gora ditu dagoeneko, baina taldea sendotzeko bazkide berriak lortu nahi dituzte. Horretarako kanpaina hasiko dute. Kalera irtengo dira, eta aurten egindakoari buruzko informazioa emango

dute, herritarrak taldera erakartzeko. Gaur musika eskola aurrean egongo dira, 18:00etatik 20:00etara. Bihar eta abenduaren 30ean merkatu plaza parean jarriko dira, 11:30etik 13:30era.

Pentsioak 1.080 eurora arte osatzeko eskatu dute Elgoibarren



Orain dela ia sei urte hasitako bidetik, Europako Gutun Sozialak jasotzen duen 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzera irten ziren kalera astelehenean Duintasuna elkarteko eta Pentsiodunen Mugimenduko kideak. Manifestazioaren amaieran, manifestarien ordezkari talde bat udaletxera joan zen, mozio bat erregistratzera. Azaldu dutenez, udalbatza osatzen duten hiru alderdiei (EAJ, EHBildu eta PSE-EE) bidali diete mozioa, eztabaidatu dezaten, "eta ahal izanez gero, onar dezaten". Mozio honen bidez, Eusko Jurlaritzari pentsioak 1.080 eurora arte osatzeko eskatu nahi diote.

'Azken etxea' liburua aurkeztuko du Arantza Urretabizkaiak Udal Liburutegian



Arantza Urretabizkaiak (Donostia, 1947) irabazi du aurten narratibako Euskadi Saria, iaz argitaratu zuen *Azken etxea* liburuari esker, eta datorren astean Elgoibarren aurkeztuko du bere lana. *Azken etxearen* bila dabil protagonista, bizitzaren azken arnasaldiaren bila, azken babes-lekuaren bila. Hendaia aldeko etxe bat begiz jo, eta harekin tematu da. Ez du bizimodu arrunta izan, eta ez dira arruntak izango azken etxe hori lortzeko egingo dituen ahaleginak. Eguaztenean izango da solasaldia, 19:00etatik aurrera.

Dislegi Debabarrena elkarteak kudeatuko du txosna bihar, hileko azken zapatuko ferian

Udalak eta Debemenek antolatuta, bihar egingo dute azaroko azken zapatuko feria. Hilero bezala, 09:00etatik aurrera Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da Kalebarren plazan, eta Artalde artisau taldekoek ere euren postuak jarriko dituzte. 11:00etan zabalduko dute txosna, eta oraingoan Dislegi Debabarrena elkarteak kudeatuko du. Elgoibarko harategietako osagaiekin egindako pintxoak salduko dituzte. 12:00etan umeentzako tailerrak egongo dira, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa.

Greba feministarako deia egiteko talde argazkia aterako dute gaur, Maalan



Mugimendu Feministak greba orokorrerako deia egin du azaroaren 30erako. Zaintza erdigunean jarri eta zaintza eredu berri bat aldarrikatzea izango da grebaren helburu nagusia. Elgoibarko Narrutsik taldeak bat egin du deialdiarekin, eta hainbat ekintza antolatu ditu, egun horren harira: Gaur arratsaldean talde argazkia aterako dute 18:30ean, Maalan. Azaroaren 30ean, bestalde, goizean goizetik irtengo dira kalera. Elkartasun piketeak egingo dituzte goizean zaintza guneetan, greba egin ezin duten langileei elkartasuna adierazteko. Kafe tertulia, kalejira, bazkaria eta manifestazio zaratatsua ere egongo dira egunean zehar. Egitarau osoa agendan duzue.

Joseba Azkarragak eta Txema Matanzasek hitzaldia emango dute, Sareren etapa berriari buruz

Joseba Azkarraga Sareko kideak eta Txema Matanzas abokatuak hitzaldia emango dute martitzenean. Sarek argitaratu berri duen manifestua izango da hitzaldiaren oinarria, eta *Giltzak* izeneko dinamika berria aurkeztuko dute. Kultur Etxean izango da, 19:15ean. Gaur, bestalde, presoen aldeko elkarretaratzera deitu du Elgoibarko Sarek. 20:00etan izango da, Kalegoen plazan.

Errigorako otarrak gaur banatuko dituzte, Mendaron

Errigora ekimeneko otarrak banatuko dituzte gaur arratsaldean, Mendaron. 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo dute banaketa, Jubilatuen lokalean.

Jose Cruz Igartua apaiz egin zela 50 urte bete dira eta bihar ospatuko dute



Isiltasunaren Eskolak bere lanaren aitortza egingo dio bihar Jose Cruz Igartuari. 2017ko azaroaren 16an elgoibartar talde batek Igartuaren hitzaldi batean parte hartu zuen, eta erabaki zuten tarteka biltzea, hausnartzeko. Isiltasunaren Eskola sortu zuten, eta hamabostean behin biltzen dira. Hilean behin Jose Cruz Igartua bera etortzen da Madrildik, eta berak gidatzen ditu saioak. Zehaztu dute ez dela talde erlijiosoa, baizik eta errespetuan, maitasunean eta bereziki, askatasunean oinarritzen den hausnarketa taldea.

Isiltasunaren Eskolak sei urte bete berri ditu beraz, eta sei urte horietan taldea handituz joan da. Gaur gaurkoz, 20-30 bat lagun biltzen dira meditazio espiritual saioetan. Igartuak ekainean bete zituen 50 urte apaiz egin zenetik, eta gaur bere urtebetetzea da; 76 urte bete ditu. Hori guztia kontuan hartuta, biharko ospakizun eguna

antolatu du Isiltasunaren Eskolak. Helburua Jose Cruz Igartuari eskerrak eman eta bere lanaren aitortza egitea da. Isiltasunaren Eskolatik esan dute pertsona ona, irekia, eta espirituala dela, "eliztiar ezohikoa", eta sekulako ohorea dela herritarrentzat bere saioekin kontatu ahal izatea.

Biharko ospakizunak 11:00etan hasiko dira, meza berezi batekin, eta eguerdian bazkaria egingo dute Txarriduna jatetxean. Nahi duen orok hartu dezake parte, parrokiako sakristian izena emanda.

Euskara bultzatzeko egindako lanari aitortza egingo diote gaur zortzi, 'Egin zenutelako gara!' ekitaldian

1950ean hasi eta 1990era arteko Elgoibarko euskalgintza zelakoa izan zen ezagutzeko ekitaldia egingo dute abenduaren 1ean Herriko Antzokian. Elgoibarko Izarrak eta Udalak prestatu dute ekitaldia, gure aurrekoei egin zuten lana aitortzeko, haiek egin zutelako garelako gaur euskaldunak. Ordubeteko bideo batekin hasiko da ekitaldia. Bideo horren oinarrian daude Elgoibarko Udalaren enkarguz Badihardugu elkarteak egin dituen 45 elkarrizketak. Bertan, 40 urteko euskalgintzaren historia jasotzen da protagonisten ahotik. Ondoren, Elgoibarko garai hartako euskalgintzako eragileak bistaratuko dira banan-banan (eliza, gau-eskola, Ongarri elkarte, Ikastola, e.a.), eta guztien ordezkariak igoko dira Herriko Antzokiko oholtzara, herritarren esker ona eta txaloak jasotzera. Ekitaldia janzteko,



musika, bertsoak, dantza, txistua eta antzerkia ere izango dira, besteak beste, eta bi orduko iraupena izango du.

Ekitaldia 18:00etan hasiko da eta parte hartzeko beharrezkoa da gonbidapena jasotzea, elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatziz, 943 741 626 telefono zenbakira deituz, edo aurrez-aurre Aita Agirre kulturgunean, 3. solairuan.

Atxutxiamaikaren negulekuetan izena emateko epea abenduaren 10ean amaituko da

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak neguko oporraldirako negulekuak antolatu ditu, Udalarekin elkarlanean. HH2tik LH6ra arteko umeentzako eskaintza prestatu dute, eta abenduaren 10era arte egongo da zabalik izena emateko epea.

HH2tik HH5era arteko umeentzat txokoak antolatu dituzte. Bi txanda egongo dira aukeran: abenduaren 26tik 29ra lehenengoa eta urtarrilaren 2tik 5era bigarrena. 09:00etatik 13:00etara izango dira. LH1etik LH3ra bitartekoentzat ere txokoak antolatu dituzte, baina horrez gain hainbat ekintza berezi ere izango dituzte: abenduaren 27an, esaterako, pista jokoa egingo dute, eta urtarrilaren 3an, Getariara joango dira egun-pasa. Sukaldaritza tailerra eta Eibarrera bizikletaz joan-etorria ere egingo dituzte. Nahi duenak ekintza solteetan parte hartzeko aukera ere badauka. Azkenik, LH4tik LH6rakoentzako Elgoibarren egonaldia, masterchef, urte amaierako festa eta beste hainbat ekimen antolatu dituzte.



Egitarau zehatzak eta prezioak zein diren jakiteko elgoibarkoizarra.eus webgunea kontsultatu daiteke, eta izena ere bertan eman behar da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 741 746 telefonora deitu behar da.

Aisialdi eskaintza honetan parte hartzeko diru-laguntzak emango ditu Udalak. Interesatuak Herritarren Arreta Bulegoan jaso behar dituzte inprimakiak edo elgoibar.eus webgunean. Eskera egiteko azken eguna abenduaren 12a izango da.

Desfibrilagailuak erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu du Mendaroko Udalak

Bihotz Biriken Suspertzea eta Kanpoko Desfibrilagailu erdi automatikoa erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu du Mendaroko Udalak. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da eta bihotz biriken geldialdi bat identifikatzen nahiz oinarrizko suspertze teknikak gauzatzen irakatsiko dute. Bi

saio eskainiko dituzte: azaroaren 27an euskaraz eta abenduaren 4an gaztelaniaz. 18:30etik 20:30era izango dira bi saioak, udaletxeko udalbatza aretoan. Arduradunek esan dute ez dela osasun arloko jakintzarik behar parte hartzeko. Izena emateko: erregistroa@mendaro.eus.

Islabat taldeak Euskarazko artista onenaren saria jaso du Rockein lehiaketan

Zapatuan jokatu zuten Rockein musika jaialdiko finala Basauriko Social Antzokian, eta 191 parte-hartzailetatik sei talde iritsi ziren finalera, haien artean, Elgoibarko Islabat. Asier Olabarrieta, Jesus Jimenez, Aitzol Mujika eta Andoni Alonsoren bandak euskarazko artistarik onenaren saria jaso zuen.



Sari honi esker, Jon Agirrezabala (WAS, Zabala) produktorearekin abesti bat grabatzeko aukera izango dute, bai eta MAZ Basauriko jaialdian edo Bizkaiko aretorik onenatariko batean jotzeko aukera ere bai.



INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO OIHUAK HARTUKO DU KALEA

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da bihar, azaroak 25, eta horren harira, hainbat ekimen egin dira hilabete osoan zehar, baina bihar ere izango dira, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Zapata gorriak jarriko dituzte Mendaroko plazan 13:00etan, eta zapata bakoitzak indarkeria matxistak hil duen emakume baten izena izango du ondoan. Elgoibarren, berriz, manifestazioa egingo dute Kalegoen plazatik Maalara. Segidan 'Bizirik eta aske' abestia kantatuko du musika eskolako koruak, eta amaitzeko, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du.

2023ko urtarrietik irailera bitartean bikotekideak, bikotekide ohiak edota senide batek eragindako erasoak edo sexu-askatasunaren kontrako 4.879 delitu

erregistratu ditu Ertzaintzak, emakumearen kontrako indarkeria-modu ezberdinetan. Iazkoaldi berarekin alderatuta, era horretako delituek, oro har, %6,2 egin dute gora. Denboraldi horretan, Ertzaintzak delitu horien biktima izan diren 3.983 emakume zenbatu ditu, eta iazko datuekin alderatuta, biktima kopurua %7,7 hazi da.

Ertzaintzak 2023an jasotako salaketa-kopururik handiena bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria kasuengatik jaso du, 569 zehazki, eta aurreko urtearekin alderatuta, igoera % 7,2koa izan da. Aurten, orain arte, bi emakume hil dituzte Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian bikoteak edo bikotekideak: Maiatzaren 16an, Lourdes del Hoyo 50 urteko emakumea hil zuen bikotekide ohiak Orion, eta bere buruaz beste egin zuen gero. Maiatzaren 28an, berriz, Maialen Mazon 32 urteko emakumea hil zuen Gasteizen bikotekide ohiak. Gaur egun, 5.616 emakumek dute Ertzaintzaren babes: 2.738k Bizkaian, 2.010ek Gipuzkoan eta 858k Araban.

Eskandalagarriak dira datuak, eta biharkoa protestarako eguna izango da, baita Elgoibarren eta Mendaron ere. 13:00etan zapata gorriak jarriko dituzte Mendaron, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak oroitzeko. Elgoibarren, berriz, manifestazioa egingo dute 20:00etan Kalegoen plazatik Maalara, eta segidan, *Bizirik eta aske* kantua abestuko du musika eskolako abesbatzak. Amaitzeko, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du.



Korunahia eta Gaztenahia: gazteen kanturako nahiak sortuak

Elgoibarko musika eskolan korua ere irakasten dute lehenengo eta bigarren mailan. Derrigorrezkoa da bi urte horietan, eta gero, aukerakoa. LH5etik DBH1era arte Korunahia egitasmoan parte hartzeko aukera dute umeez, eta DBH2tik aurrera, Gaztenahia koruan. Silvia Hernandez da musika eskolako koro irakaslea, eta aldi berean, berak zuzentzen ditu Korunahia eta Gaztenahia abesbatzak. Astean behin biltzen dira entseguak egiteko, eta tarteka kontzertuak ere ematen dituzte. Bihar, esaterako, bi koruak elkarrekin arituko dira Maalako parkean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira sortu duten 'Bizirik eta aske' abestia kantatzeko.

Goi mailako piano ikasketak egin zituen Silvia Hernandezek, eta ordutik musika alorrean egin du bere ibilbide profesionala. Orain dela zortzi bat urte iritsi zen Inazio Bereziartua musika eskolara, eta beste hainbat zereginen artean, abesbatza zuzentzeko ardura ere eman zioten. Ordura arte Iñaki Maidaganen arduran zegoen koroa. Flauta irakaslea zen, eta Arrasateko koruko zuzendaria. Silviak haren bidea jarraitu zuen, baina koroari beste ukitu bat emateko beharra somatu zuten musika eskolan, eta modernizatzea erabaki zuten. Koroa derrigorrezkoa da musika eskolako lehenengo eta bigarren mailan, eta horrek badauka bere azalpena. Garai batean laugarren eta bosgarren mailan ematen zen abesbatza, baina konturatu ziren koroari esker umeez taldean lan egiten ikasten zutela, ahotsa lantzen zutela, zuzendariari

segitzen ikasten zutela eta hori txikitatik ikastea aberasgarriagoa zela beraiantzat; horregatik aldatu zuten. Baina derrigorrezko bi urte horiek egin ondoren, etena zegoen Elgoibarren. Garai batean egon zen Itxaropena Abesbatza, baina hura ere desagertu zen eta gaur egun Parrokiako Abesbatza bakarrik dago martxan. Beraz, koruan abesten jarraitu nahi zuten ume zein nerabeek ez zeukaten horretarako aukerarik. Gehienek derrigorrezko bi urte horien ondoren lagatzen bazuten ere, koruan jarraitu nahi zuten gazte batzuk hurreratu zitzaizkion Silviari. "Hura izan zen koroari beste ukitu hori emateko momentua, eta Koru Nagusia izeneko talde bat sortu genuen". *Kantuz sortu, kantuz bizi* proiektua jarri zuten martxan. Alexander Lesbordes (Frantzia, 1912-1969) musikariaren Kantuz abestitik hartu zuten leloa, eta kamisetak ere atera zituzten: "Umeez



jaiotzean egiten duten negarra kantu ederra izaten da, eta kantuan bizi daitezen, abesbatzak indartzeko apostua egin nahi izan genuen". Ume batzuk nagusitzen zihozazen, eta atzetik sartzen ziren berriak, beraz, adin tartearen arabera, bi talde bereiztu zituzten iaz: Korunahia (LH5etik DBH1era artekoentzat) eta Gaztenahia (DBH2tik aurrerakoentzat). Korunahian 30 bat ume daude aurten, eta hori izango da Gaztenahiaren harrobia. Gaztenahian 11 gazte daude: "Gutxi gara, baina oso pozik gabiltza eta oso ondo egiten dugu lan. Abestiak hiru ahotsetan abesten ditugu, eta sekulako lana egiten dute". Hasieran ume gutxi batzuk zeuden, baina pixkanaka-pixkanaka jendea batu zitzairen, eta denborarekin taldea sendotuz joan zen. Gaur egun 40 umetik gora ari dira koruan parte hartzen.

Musika eskolan egiten duten lan hori jendeari erakustea ere gustatzen zaie. Horretarako urtean zehar hainbat kontzertu ematen dituzte. Elgoibarren urteroko kontzertuak dituzte: Eguberrietan San Bartolome Parrokian egiten dutena izaten da ikasturteko lehenengoa; kurtso amaieran, Maalan abesten dute, eta, horrez gain, koroen kontzertua egiten dute Herriko Antzokian. Abesbatzen kontzertu horretan ikasle guztiak hartzen dute parte. Abesti batzuk taldeka kantatzen dituzte, baina adin tarte diferenteetako taldeak ere elkartzen dira tarteka, abesti batzuk kantatzeko. "Kontzertu berezia izaten da. Batzuetan gai bat hartzen dugu eta horren bueltan prestatzen ditugu kantuak. Lan handia eskatzen

'Bizirik eta aske' kantua abestuko dute bihar zuzenean Korunahia eta Gaztenahia taldeek batera, musika eskolako musikariek. Indarkeria matxista gaitzesteko kantua da.

du kontzertu horrek, bukaeran elkarrekin abesten dutelako ume guztiak, 100 ume inguruk". Hori guztia prestatzeko, asteburu-pasa joaten dira Barriara. Korunahia eta Gaztenahiako partaideak barikutik joaten dira Silviarekin, eta ikasle gazteenak zapatuan joaten dira. Musika eskolako beste irakasle batzuk ere joaten dira Barriara, eta harremanak sendotzeko ere balio du irteera horrek: "Asteburu potentea izaten da, gogorra da, baina oso ondo pasatzen dugu guztiok, bereziki umeek. Harremanak lantzen dira, baloreak, tailerretan hartzen dute parte, jolasak egiten dituzte... Txikiak nagusiekin harremantzen dira, ikastetxe desberdinetako umeak ibiltzen dira elkarrekin eta oso-oso aberasgarria izaten da. Show gaua ere prestatzen dute, eta oso dibertigarria izaten da". Elgoibartik kanpora ere abesten dute tarteka. Iaz, esaterako, Markinako abesbatzarekin egin zuten trukea, eta Pasaiako Musikaldian ere hartu zuten parte, beste hainbat herritako koroekin batera. Horrez gain, herrian

egiten diren ekitaldi batzuetan abesteko gonbitea ere jaso izan dute, azkena, Elgoibarko Izarrak eta Haritz dantza taldeak antolatutako mintegi batean izan zen.

Biharkoa ere egun berezia izango da musikako eskolako koruko kideentzat. Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira *Bizirik eta aske* abestia sortu dute. Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolaren arteko lankidetzaren emaitza izan da abestia. Vivir Quintana konposito mexikarraren *Canción sin miedo* abestia moldatu zuten, *Bizirik eta Aske* bihurtuz. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko mezu indartsua dauka abestiak, eta kantaren bidez zabaldu nahi dute mezu hori. Aitor Nova eta Silvia Hernandez izan dira kantuaren zuzendariak, eta musika eskolako musikariek eta koruko abeslariak osatu dute. "Kantuaren bidez umekin indarkeriaren gaia ere landu dugu, jakin behar zutelako zer ari ziren abesten, eta oso interesgarria izan da. Uste duguna baino askoz gehiago dakite umek gai honi buruz". Kantua abesteaz gain, estudio batean grabatzea pentsatu zuten: Urdulizko Tio Pete estudioan grabatu zuten, eta beraiek han zeudela, Ura Bere Bidean egitasmoko musikariak ere grabazio lanetan ari ziren: "Gure taldeko umeentzat sekulako esperientzia izan da". Bihar zuzenean abestuko dute kantu hori koruko kideek eta musika eskolako musikariek. Maalan izango da, manifestazioaren ostean. Segidan, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du.

KORURAKO ATEA ZABALIK DAGO

LH5etik aurrera, beraz, borondatezkoa da koroa, eta nahi duenak hartu dezake parte. Korunahian sartzeko, musikan ibiltzea beharrezkoa da: "Batez ere partiturak irakurri behar direlako, eta horretarako musika ikasketen oinarri sendo bat oso ondo etortzen delako. Astean behin bakarrik biltzen gara, eta denbora oso justua izaten dugu nahi ditugun gauza guztiak egiteko". Gaztenahian gehienak musikako bosgarren maila amaitu ostean sartzten dira, baina kasu horretan musika ikasketarik ez dituzten gazteak ere onartzen dituzte: "Helduagoak dira, eta benetan abestea gustuko duenak ikasiko du, belarri ona baldin badauka. Beraz, atea zabalik dago edonorentzat; gustatuko litzaiguke jendea taldera batzea".



IRATXE HERRERO ZARATE

Soziologoa, gerontologoa
eta kriminologoa

✍️ Ainara Argoitia

Mendaroko Udalak eskatuta, 'Mujeres mayores y violencia de género' hitzaldia emango du gaur Y-logika gabineteko zuzendari Iratxe Herrero Zaratek udaletxeko udalbatza aretoan, 19:00etan hasita. Soziologoa, gerontologoa eta kriminologoa da Herrero lanbidez eta andre edadetuek jasaten duten genero indarkeria aztertu du Carlos Diaz de Argandoña politologoarekin batera, Emakunderen bekari esker. Uztaileen eman zuten argitara azterlana eta salatu zuten adineko emakumeak bereziki zaugarriak direla indarkeria matxistaren aurrean, haien adinarekin lotutako faktoreen ondorioz.



“Adinkeriak ezkutatu egiten ditu emakume adinekoak biktimen iruditeritik”

Emakunderentzako egindako ikerketan ohartarazi zenuten 65 urtetik gorako lau emakumetik batek -67.000 baino gehiago guztira- indarkeria matxista jasan izan duela Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, eta horietatik %5,7k -hamasei bat mila emakumek- sufritzen dutela gaur egun ere. Harritu gaitu datuak, beharbada adineko emakumeak ez daudelako biktimez dugun iruterian.

Fenomeno ezezaguna eta ahaztua da adineko emakumeen kontrako genero indarkeria eta horixe da lehenengo arrazoia. Ez gara gai imajinatzeko biktima adineko emakume bat izan daitekeela, arrazoi askorengatik. Arrazoietako bat da emakume hauek nekez joaten direla biktimei laguntzeko dauden zerbitzuetara, eta ondorioz

ez direla agertzen salaketan erregistroetan, ez eta zerbitzu ezberdinen inguruko estatistiketan ere. Beren egoera ikusgarri egiten ez duten emakumeak izan ohi dira, etxeko trapu zikinak etxean garbitzen direla sinestarazi dietelako; 'jasan eta isildu' kulturaren baitan hezi dituztelako. Hedabideetan sentsibilizazio kanpainen berri ematen denean ere nekez ematen da haien irudirik. Normalean, 40-50 urteko ama baten irudia agertzen da, edo bestela, neska gazte batena, sare sozialen kontu horrekin asko ugaritu direlako gazteagoen kontrako erasoak. Eta guzti horrez gain, adinkeriarena ere badago. Adinkeriak eragin handia du gizarteak indarkeria matxistaren biktimen inguruan duen iruditerian.

Estereotipoen eraginez, adineko pertsonak baztertu egiten dira alor askotatik, eta hemendik ere bai.

Kasu gutxiago ezagutzea, hortaz, ez da inzidentzia apalagoaren erakusgarri.

Hori da, eta horregatik da larria kontu hau, adineko emakumeek gazteagoek baino isiltzeko joera handiagoa dutelako. Ez daukat datu zehatzik emateko, baina iruditzen zait biktima diren emakume gehiago egon behar direla 65 urtez gorakoetan adin tarte gazteagoetan baino, arrazoi horrengatik, sufritzen ari direna genero indarkeria dela identifikatzeko dituzten zailtasunengatik. Gertatzen da beste kontu bat ere. Bizi-itxaropena luzatu egin denez, genero indarkeria jasan duten andre hauetako asko alargunduta daude, baina ez genuke ahaztu behar indarkeria kronifikatu baten ondorioek denboran irauten dutela, erasotzailea hilda egon arren. Ez genituzke ahaztu behar urteetan direnak eta bi sufritu eta isildu dituzten emakume horiek, laguntza behar izaten dutelako. Urteetan biktima izan arren laguntzarik jaso ez duten emakumeen osasun fisiko eta psikikoa beren adineko beste emakumeena baino askoz debilduago egoten da, bai eta genero indarkeriaren biktima izan diren beste andre gazteagoena baino ere. Hankapean izan ohi dute autoestimua, sare oso murrizta inguruan harremantzeko, bakardade handiagoa eta bizi-kalitatea eskasagoa, eta horri gehitu behar diogu zaintza beharren bat izan dezaketela bestela ere adin kontuengatik. Horrek asko zaurgarriago egiten ditu.

Adinekoen eskubideei egiten zaien aitortza txikiarekin zerikusirik izan al dezake adinekoen kontrako genero indarkeria horren ikusezin izateak? Nola eragiten die?

Zalantza barik. Adinean oinarrituta egiten den bazterketari esaten diogu adinkeria. Egin diren ikerketek ondorioztatu dute askotan ahazten zaizkigula adineko pertsonak. Estereotipo jakin batzuekin lotzen ditugu adinekoak eta ez dugu onartzen beste ezaugarri batzuk izan ditzaketetik. Inori ez zaio bururatzeko 90 urteko emakume bat genero indarkeriaren biktima izan daitekeenik, eta hala, Berdintasun politikak eta adinekoei laguntzeko politikak diseinatzerakoan ere ahaztu egiten gara sarri haietan, adinkeriagatik. Paradoxikoki, adinkeriak

"Adinkeriak ezkutatu egiten ditu adineko emakumeak biktimen iruditeritik eta mesede egiten die, berriz, gizonari, uste dugulako 90 urteko gizon batek ezin duela minik eman"

tratu txarrak ematen dituzten gizonengan ere badu eragina, besteak beste adinekoen inguruan onkeriazko aurreiritziak izaten ditugulako eta ondorioz zaila zaigulako irudikatzea gizon edadetu bat indarkeria erabiltzen. Adinkeriak, beraz, ezkutatu egiten ditu adineko emakumeak biktimen iruditeritik eta zaurgarriago egiten ditu hala, eta gizonen kasuan, berriz, adinkeriak mesede egiten die, adinekoez dugun aurreiritziak esaten digutelako 90 urteko gizon batek ez duela min egiteko ahalmenik. Emakumeentzat arrisku-faktorea dena beraz, babes-faktore bat da gizonentzat.

Zer hartu beharko genuke kontuan adineko emakumeen aurkako genero-indarkeriazko egoerak prebenitzeko eta haiei arretea emateko?

Gaia ikustarazteko ahalegin guztiak dira onak. Ikusten ez dena ez da existitzen, eta ereduak egotea inportantea da gu haietan islatuta ikus gaitezen. Iruditzen zait hedabideak, adibidez, aliatu handiak direla egoera hauek identifikatzen laguntzeko orduan. Zerbitzu eta baliabide ezberdinen erabileraren inguruko datuak ematea garrantzitsua da eta erakundeetatik egiten diren kanpainetan adineko emakumeak agertzea ere bai. Emakume batek bere adinkide baten ahotik entzuten badu senarrak dirua kontrolatzen diola, gazteagotan baimena eskatu behar izaten ziola lan egiteko, lagunekin batzea debekatzen diola edota zenbait gauza eginaraztera behartzen duela errazago izango zaio ikustea berak bizi duena ere ez dela onargarria. Soziologo eta gerontologo moduan iruditzen zait Berdintasun politikak gerturatu behar direla adineko pertsonengana. Hutsune handia daukagu hor. Adinekoen inguruko gizarte politikan zahartze aktiboa sustatzen da gaur beste ezeren gainetik, eta berdintasun

kontuak ahazten direnean, indarkeria kontuak ere ahazten ditugu. Berdintasun politikak gehiago zentratzen dira estatistetan ageri diren emakumeengan, eta politika horiek diseinatzeko ari direnei ere kosta egiten zaie adinekoengan erreparatu behar dutela ikustea. Bestalde, iruditzen zait adineko emakumeak dauden lekuetara zuzendu behar direla kanpainak eta berdin baliabideak. Emakume hauek ez dira laguntza bila irtengo inora; laguntza beraiek dauden lekuetara bideratu behar dugu. Joan behar gara egoitzetara; hurbildu behar dugu landa-eremuetan bizi direnengana, herriguneetan bizi direnek baino dezentez zailagoa dutelako han egoera hauek ikustarazteko; eta baliabide gehiago eman behar dizkiegu gizarte laguntzailei edo egin behar izaten dituzten lan administratibo batzuk kendu bestela, hartu ahal dezaten denbora emakumeekin egoteko. Familia medikuak ere oso aliatu onak izaten dira biktimak identifikatzeko, baina denbora behar dute haiek ere buruko minez eta lo egin ezinda dabiltzala esanez joaten zaizkien emakumeen arazoietan arakatzeko. Adineko emakumeekin lan egiten duten profesionalak sentsibilizatzea ezinbestekoa da emakume hauengana gerturatu ahal izateko.

Ez dakigu adineko andren kontrako genero indarkeria kasuak ugaritzen ari diren, baina bai adin tarte horretako kopurua hazten ari dela biztanleria-piramidean, eta beraz, horregatik ere justiziakoa ematen du beste begirune bat izatea haiekiko. Norbanako moduan nola lagundu diezaiekegu?

Emakume gazte bat joango da eskolara edo lantokira eta beharbada gutxienez sentsibilitate bat duen norbait ohartuko da gertatzen ari zaionaz, baina adinekoak, hain egoten dira bakartuta askotan, inork ez dituela ikusten.

"Adinekoen inguruko gizarte politikan zahartze aktiboa sustatzen da gaur beste ezeren gainetik, eta berdintasun kontuak ahazten direnean, indarkeria kontuak ere ahazten dira"

Adin hauetan, gainera, eraso fisikoak baino gehiago izaten dira psikologikoak: umilazioa eta kontrol ekonomikoa, esaterako. Horrek uzten duen arrastoa ez da hain nabarmena izaten hirugarren baten begietan. Ikusten badugu emakume bat ez dela etxetik apenas irteten edo hitz egiteko beldurrez somatzen badugu, alerta piztu beharko genuke, baina ez epaitzeko, baizik eta gertatzen ari zaiona ulertzeko, lagundu ahal izateko. Askotan gertatzen da familia barruan ere ez diegula sinesten, bizitza osoan sufrutako indarkeriaren frogak borratzen aritu denari nekez sinesten diolako jendeak adinean aurrera doanean gauzak kontatzeari ematen dionean. Entzun egin behar diegu gehiago. Kontatzera ausartzen direnek esaten digute sarri ingurua jakinaren gainean egoten dela gertatzen ari zaionaz, baina inork ez duela ahazten eta eurek ikasten dutela isiltzen, min handiagoen beldur.

Mendaron gaur ematekoa duzun hitzaldiaren tankerakoak emango zenituen beste herri batzuetan ere. Zer galdetzen dizute halakoetan bereziki? Zer perfiletako jendea hurreratzen da hitzaldietara?

Zifrekin harritzen da bereziki jendea, gehienek uste dutelako adin aurreratuetan genero indarkeriak ez duela lekurik. Biktimari nola lagundu eta zer esan horrek ere kezkatzen du jendea. Askotan esaten dugu kasu hauek salatu egin behar direla, eta hala da, salatu egin behar dira, baina adineko emakumeekin beharbada badaude aurretiagoko kontuak. Nik esango nuke entzutea eta babesa eskaintzea garrantzitsuagoa dela, eta behin hori eginda, erabakiko dugu zer egiteko modua dagoen, beti ere biktima behartu gabe. Entzuteko denbora eta pazientzia da hemen falta izaten duguna, hori ere gertatzen zaigulako: sekula ez dugula denborarik adinekoei eskaintzeko.

Begiak zabaldu behar ditugu lehenengo eta jabetu adineko emakumeek ere sufritzen dutela genero indarkeria eta ziurrenik gaur biktima diren gazteago asko baino baldintza askoz zailagoetan izan direla, gainera, biktima, genero indarkeriaren biktimen alde inork ezer egiten ez zuen garaian. Bi aldiz dira biktima: lehen genero indarkeria ez zelako publikoki existitzen eta orain, ahazturara kondenatu ditugulako. Superbibianteak dira.

|| 24-26 milioi euro, Debabarrena eskualdea biziberritzeko

Bi urteko lanketaren ondoren, Debabarrena eskualdea suspertzeko ponentziaren txostena onartu zuen joan zen barikuan Eusko Legebiltzarrak, aho batez, eta horren baitan 24-26 milioi euro ematea eskualderako. Txostenean aztertu eta sustatu behar diren hainbat puntu jaso dituzte, eta sei hilabeteko epea zehaztu dute plan estrategikoa gauzatzeko.

Debabarrena eskualdea suspertzeko Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak talde parlamentarioek aurkeztutako legez besteko proposamen batean du oinarria ponentziak. Ekimen hura 2021eko urriaren 7an eztabaidatu zuten Eusko Legebiltzarrean eta EA-NV, EH Bildu eta SV-ES talde parlamentarioek sinatutako erdibideko zuzenketa bat onetsi zuten gero. 2021eko azaroaren 9an eratu zuten ondoren ponentzia eta askotariko eragileen arteko lankidetzan osatu dute bi urte hauetan Legebiltzarrean aho batez onartu duten txostena. Hona jaso dituzten ondorio nagusietako batzuk:

- Degradatutako auzoen berroneratze integralaren alde egitea, irisgarriagoak eta energetikoki eraginkorragoak izan daitezzen.
- Eskualdearen bereizgarri izan diren kualifikazio espezifikoetan belaunaldi-erleboia ziurtatzeko prestakuntza duala sustatzea, eskualdean errotuta dauden zenbait lanbidek biziraun dezaten, eta enpresei eskualdean egonkortuko den talentua eta espezializazioa erakartzeko aukera emango dieten profiletako prestakuntzaren alde egitea.
- Nazioartekotzearen, digitalizazioaren, dibertsifikazioaren eta ekintzailtzaren alde egitea, bai eta 4.0 industriaren alde egitea ere. Produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko balio erantsia ematen duten eskualdeko enpresen arteko lankidetzaren sustatzea.
- Eskualdeko enpresen berrikuntza-prozesuak bultzatzea eta bizkortzea, batez ere trantsizio digitalari eta ekologikoari dagokionez. Industriadun zaharkituak eta lagatako enpresa-guneak eraberritu eta haien berrerabilera lehenesteko aukerak ebaluatzea, lurzoru industrial berria okupatu aurretik, eta lehendik dauden industrialdeetako sarbide eta azpiegituretan hobekuntzak egitea. Eta, industrialde horietara iristeko garraio publikoa bultzatzea.
- Garraio publikoa hobetzea eta eskualdeko bidegorri sarea bukatzea. Besteak beste jaso

Inguruko sektore eta eragile ezberdinen artean landu dute txostena, eta sei hilabeteko epea zehaztu dute plan estrategikoa garatzeko

dituzte: Ermua-Deba tranbia zerbitzuaren maiztasuna hobetzea; Maltzagan nodo bat eraikitzea (Tren geltokia berreskuratzea, autobus-geltoki batekin eta autoentzat zein bizikletentzat aparkalekuak egokitzea); Zumaia-Donostia tren-zerbitzua Deba-Donostia bihurtzea; Mutriku, Itziar, Mallabia eta Sorluze anezka bitartez gerturatzea.

- Etorrinen integrazioa bermatzeko, enplegarritasun eta prestakuntza programak garatzea, eta gizarte-kohesiorako eta etxebizitza sozialetarako plana garatzea, mendekotasun-egoeran daudenek errazago lor ditzaten egoitzabaliabideak; gizarte-proiektuetarako etxebizitzaren lagapena gaitzea; eta eguneko zentroaren eta desgaitasun intelektuala dutenentzako etxebizitzaren proiektua garatzea.
- Turismo industrial eta kulturala bultzatzea, eskualdean badirelako gutxi bisitatzen diren baliabide turistikoak. Eta eskualdeko turismoak duen potentzialtasunari buruzko azterketa egitea, eta museo-ondare industrial eta naturguneak balioestea, turismo jasangarria sustatzeko.
- Akuikultura sustatzea.
- Jakinda eskualdea distantzia berera dagoela probintzia-hiriburuetatik, eta zenbait udalerriren kokalekuari eta egoera urbanistiko eta orografikoari buruzko datuak kontuan hartuta, beharrezkotzat jo dute mugikortasunaren arlo honetan berariazko jarduketak egiteko aukera aztertzea.
- Tokiko merkataritza sustatzea, bertan kontsumitzea erakargarri egingo duten estrategiak bultzatuz. Lehenengo sektorearen eta nekazaritzaren zein baserri txikien garapena bultzatzeko aukerak aztertzea.

DA!

58. DURANGOKO AZOKA
2023ko abenduaren 6tik 10era

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

IBAIZABAL

IBAIZABAL

IBAIZABAL

**Errealitate bihurtu
den fantasia**

Badator 58. Durangoko Azoka

ABENDUAREN 6TIK 10ERA BITARTEAN IZANGO DA, 'FANTASIA DA!' LELOAREKIN

Euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua den Durangoko Azokak abenduaren 6tik 10era bitartean izango ditu atea zabalik.

Fantasia DA! leloarekin dator aurtan, Nerea Mujika Gerediaga-ko gerenteak esplikatu duen moduan: "Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuaren usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarra, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende alaiaren berbaroa, bizigogoa, kulturaren beroa".

Dagoeneko 58 urte igaro dira azokaren hasierako bultzatzaileen amets hartatik, "fantasia hura errealitate bihurtu zen eta gaur egun euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua dugu".

Mujikak gaineratutakoaren arabera, "Euskal kulturari bultzada emateko asmoz, Durangoko Azoka jendetsu eta aberatsa izatea, horixe da gure fantasia".

Mundu propioa sortu

Fantasia horren irudi eta isla, Ximon Agirre artistak sortutako kartelak ilustratuko du azoka, hiru dimentsioko irudi sakona baliatuz, errealitate bertualean landua. Kolore alai eta saturatuekin, Durangoko Azokaren festa izaera bistaratzeko helburua izan du. "Kartelaren ideia nagusia mundu propio bat sortzea izan da, azokaren elementuak (liburuak, musika, bideogintza, teknologia berriak...) pertsonaia fantastikoekin uztartzuz", esplikatu du Agirrekerak.



Bisitari ugari izan zen iazko Durangoko Azokan. DURANGOKO AZOKA

Ikasle Goiza

Azokak abenduaren 6an atea zabalduta ondorengo egunean, abenduaren 7an ikastetxeetako eta aisialdi taldeetako gazteei zuzendutako tailer, hitzaldi eta ikuskizunen egitaraua izango da, bestela esanda, Ikasle Goiza izango da.

Egun horretan Ikasle Goiza izan arren, azoka nahi duen guztiarentzat zabalik izango da 10:30etik 20:00ak bitartean.

Aurrez aurrekoaren alde

Osterantzean, aurtan, Durangoko Azokak aurrez aurreko formatuaren erabateko apustua egin du, 2020an, pandemiaren eragindako egoerak behartuta, abian jarri zuten online azoka ereduaren leihoa itxiz.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, iaz, azoka presentziala indartu zuten, eta erabiltzaileek

ere aukera hori lehenetsi zuten. "Hori dela eta, aurtan aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dugu. Online ereduaren leihoa itxiko dugu. Hala ere, pertsona guztiz bota barik; izan ere, etorkizunean horren premia egonez gero, egoerara egokitzekeo adi egongo gara", esplikatu zuen Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkartearen koordinatzaileak.

Hurrengo astean zabalkundea

Horrekin batera, Gerediaga elkartearen ordezkariak gogora ekarri

"Aurtan, aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dute, online ereduaren leihoa itxiz"



Aurtengo Durangoko Azokaren aurkezpena. DURANGOKO AZOKA

dute Durango Azokaren osteko asteen, *Zu non, han DA!* ekimenaren bitartez, Euskal Herri osorako zabalkundeari jarraipena emango zaiola.

Zu non, han DA! ekimenari esker, Durangoko Azokako nobedadeak eskuragarri egongo dira Euskal Herriko hainbat liburu dendatan. Horietako zenbaitetan, gainera, liburu aurkezpen bereziak antolatu dituzte.

Zortzi gune ditu azokak

Azokaren ezaugarriari dagokienez, berriz, 1990etik liburu eta diskoen azokara kulturaren diziplina ezberdinak ordezkaturaz, gune bereziak lotzen joan zaizkio eta gaur gaurkoz, zortzi gunetan banatuta dago azoka: Saguganbara, Ahotsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Kabia, Plateruena eta Azoka TB.

Lankidetzarako topaketak

Bestalde, Durangoko Azokaren bueltan, baina azoka zabaldu baino lehenago, sortzaileei eta programatzaileei zuzendutako *DA! PRO* aurrez aurreko bi topaketa egingo dira azaroaren amaieran, aurtun bosgarren urtez.

Ekimen horren helburua da euskaraz jarduten duten sortzaileen eta programatzaileen arteko lankidetzaz sustatzea.

Hori horrela, *DA! PRO* topaketan, sortzaileek euren lanak erakutsi

Kabia, Saguganbara, Ahotsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Plateruena eta Azoka TB dira guneak

ahalko dituzte sektoreko programatzaileen, kultur teknikarien, liburutegietako dinamizatzaileen eta bestelako profesionalen aurrean.

Horretarako, batetik, familia ikuskizunen aurkezpen laburrak egingo dituzte, Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan, azaroaren 28an, goizez. Bibliotekaren beraren eta Berbaro euskara elkartearen laguntzarekin egingo dira aurkezpenok..

Bestetik, musikarien txanda azaroaren 29an izango da. Musika Bulegoarekin batera antolatutako ekimenean, urtean zehar Euskal Herriko kultur aretoetan ekintzak prestatzen dituzten programatzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte sortzaileen lanak. Plateruena kultur aterpean izango da topaketa hori, 09:00etatik 14:00etara.



Amorante. JON GARATE

Elgoibartik Durangora sorkuntza lan oparoa

Oparoa izan da aurten ere Elgoibarko sortzaileen uzta, bereziki literaturan, eta lan gehienak Durangon izango dira salgai. Hala ere, azokak bere eskaparate propioa izango du Elgoibarren ere.

Saiakeran estreinatu da Jasone Osoro, eta *Arrakasta* izeneko liburua eman du argitara, Elkar argitaletxearekin. *Arrakasta* lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzapen eta esperientzia propioak eta zenbait autoreren aipu eta esanak bilduta osatu du liburua.

Uxue Alberdi, bestalde, bi lan berriekin dator: *Belarriko kilkerra* eta *Surflaria*. Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*, eta Susana Martin komikilariarekin batera argitaratu du (*Ikastolen elkarte*). *Belarriko kilkerra*, bestalde, narraitiba liburua da (Elkar). Ahoz kontatu eta belarriz jasotako testuak dira liburukoak, eta ahozkotasuna, memoria, transmisioa eta giza

kondizioaren oinarriak biltzen dituzte. Begoña Durrutyk ilustratu du liburua. Horrez gain, taldean sortutako beste lan batean ere hartu du parte Alberdik, eta talde horretan egon da baita ere Daniele Sarriugarte elgoibartarra. *Zirriborroak* eta *gero* idatzi dute hamar lagunen artean. Etorkizunearn pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen laguntzen du, eta, ildo horretan, etorkizunaren dekalogo bat proposatzen digu liburua honek.

Olaia Irigoien ere idazle paperean estreinatu da 2023an. *Inesa Gaxen* ipuin ilustratua argitaratu du, Adapta argitaletxe kataluniarrekin. 6-8 urte bitarteko umeentzako ipuina da, eta Inesa Gaxenen bizitza kontatzen du. XVI. mendean jaio zen Nafarroa Beherean, eta

sorgintzat hartu zuten. Epaitua eta torturatua izan zen, baina hala ere, ez zuen inoiz sorgina zela onartu.

Musikari dagokionez, Iban Urizar Amorante izango da Elgoibar-ko ordezkaria Durangon. *Harri, Herri, Har* diskoa kaleratu du Amorantek, Forbbiden Colours argitaletxearekin. Hiru zutaberen gainean eraiki du diskoa, (*Harri, herri, har*) herri musikaren orube malgua oinarri duela. Kanpaiak, malenkonia, festa, animaliak eta poesia ageri dira. Hainbat musikari izan ditu Amorantek bidelagun: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateria jotzaileak, Hatxeren pianoa, Xabier Zeberioaren hariak, Los Sara Fontan bikoaren fantasia eta Amaia Mirandaren gitarra, besteak beste.

Durangoko Azoka, Pitxintxun Duragon ez ezik, Euskal Herriko herrietako dendak ere izaten dira Durangoko Azokaren eskaparate, eta sormen lan batzuk herrietako liburu dendetan aurkezten dituzte, *Durangoko Azokak* izeneko egitasmoaren barruan. Elgoibarko Pitxintxu opari dendak ere hartuko du parte ekimenean, eta Goiatz Labandibar (Oiartzun, 1985) idazleak bere azken lana aurkeztuko du bertan: *Bekatua*. Biharamun emozional baten kontakizuna da. Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi eta horrek bere ordurako bizimodua, harremanak, ziurtasunak eta usteak irauliko ditu. Abenduaren 13an izango da aurkezpena eta ordura aurrerago zehaztuko dute.

Elgoibarko sortzaileek ere beraien azken lanak erakutsiko dituzte Durangoko Azokan



Hitz jokoetan aditua eta aritua izan zen gazte ermuarra.

Markos Gimenoren sormena ikusgai

Joseba Sarrionadiak *Markos Gimeno*ren 101 letrakartel liburua aurkeztuko du Durangoko Azokan, abenduaren 8an

Markos Gimeno *autore erotua* da, eta horra hor liburu honetan agertzen den lehen palindromoe-tako bat, hau da, aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin-berdin irakurtzen den hitz, zenbaki edo perpausa. Kasualitateak sortu-takoak direla eman dezakeen arren, hitz joko horien atzean irudimen eta sormen esparru zabala dago, eta mundu horretan bere saltsan ibiltzen zen Ermuko gaztea.

Joseba Sarrionandia idazleak duela bi urte ezagutu zuen Markos Gimeno ermuarraren lana eta, liluratuta, haren "jenialtasuna" munduan zabaltzeko erabakia hartu zuen: "...harrigarria iruditu zitzaidan Markosek sortutako obraren grazia. Are ikaragarriagoa iruditu zitzaidan momentuan ia ezezaguna izatea, euskal mundutxoan ere, Ermutik

edo Eibar aldetik kanpora", azaldu du Sarrionandiak liburuaren hitzaurrean.

Sortzailearen inguruan beti izan den senide eta lagun sare horretara hurbildu zen idazle iurretarra, eta lana biltzeari ekin zion, baina ez Markosen lan guztiak liburuteko baten bildu eta argitaratzeko, baizik eta bere obra "*katalepsi*atik atera, eta haren lanaren parte bat behintzat, palindromoen, euskal hiztunen artean (...) ezagutarazteko; iratzarri, bizkor-tu eta zabal dadin".

Horrela sortu zen *Markos Gimeno*ren 101 letrakartel, Markosen palindromoekin hainbat marrazkilarik, grafiterok eta argazkilarik egindako ehunik gora kartel biltzen dituen. Kolaboratzaile hauen artean daude, besteak beste, Esther Astarloa, Jose Antonio Azpilikueta, Sonia Garcia, Gorka

"Kartel palindromiko bakoitza (...) jolas lilulagarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat"

González, Exprai, Santos Vega, Monti, Klemen Corredera edota Tono Fernandez. Guztira, ia 40 lagunek parte hartu dute, lanari askotariko ikuspuntu eta ukituak erantsiz. Material guzti hau batu eta forma eman, edizio grafikoa alegia, Esteban Montorio diseinatzailearen esku utzi da.

Markosen inguruan

Markos ezagutzen ez zutenek haren bizitzaren gorabehera guztiak, edo gehienak, topatuko dituzte liburuaren lehen berrogeita hamar orrietan, inguruko enahotsek kontatuta. Hona hemen liburuaren erreseinan topatu daitekeen aurkezpen laburra: "Markos Gimeno Vesga 1974ko maiatzaren 3an jaio zen Ermuan. (...) Bere bizitza sorkuntzara bideratu zuen, nahiz eta bipolaritate gaitasuna eta depresioaldiak jasan. Bere buruaz beste egin zuen, azkenean, Eibarren 44 urte zituela, 2018ko abenduaren 7an.

Markos bizi osoa (...) sortzen ibili zen euskal komunitatearentzat (eta humanitate osoarentzat, jakina). Haren kartel palindromiko bakoitzak sorpresa linguistikoko bat aportatzen du, eta jolas lilulagarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat".

Liburua eskuratu

Liburua irakurri nahi dutenek Durangoko Azokan eskuratu ahal izango dute. Era berean, Ermuko eta Eibarko liburu-dendetan salgai jarriko da, hala nola Interneten ere.



Pop, folk, elektronika eta sustraiko musika dira nagusi Izaroren azken diskoan.

Izarok aro berri bati emango dio hasiera

Mallabiko abeslariak Durangoko Azokan aurkeztuko du bere bosgarren diskoa, *Cerodenero*, hala nola bideoklip berria

"Bi urte eta zertxobait gehiago egon gara *Cerodenero* eraikitzen. Hasieran, nik bakarrik hasten dut beti ibilbidea eta bidetik jendez inguratzen noa elur bola txiki bat bezala, handi-handi heltzen dena mendi magalera". Hitz horiekin laburtzen du Izaro abeslariak *Cerodenero* diskoa sortzeko prozesua, eta abenduaren 8an berau osatzen duten hamabi abestiek argia ikusiko dute Durangoko Azokan.

Abeslariak aurreratu duenez, *Cerodenero* album konzeptuala zirraragarria eta bizia da. Berak burututako barne-bidaia da, eta bertan berreskuratzen ditu pop, folk, elektronika eta sustraiko musika doinuen kontrastez beteriko mihiseak, lehen estrofatik harrapatzen duten poesia eta metafora zertzeladak dituztenak. "Izarok bere alderik argitsuena erakusten digu, baina baita ba-

satienea ere, aro berri beti hasiera emanetz", adierazi dute zabaldu-tako prentsa oharrean.

Diskoak hamabi abesti biltzen ditu, eta horietako lau entzungai daude dagoeneko hainbat plataformatan eta ikusgai YouTubean: *introa*, *Zero*, irailean estreinatuz; horren ostean, *x eta besteak* zabaldu zen; urrian, *Campamento base*; eta azaroan, *Iparraldera*. Abenduaren 8an, bosgarren bideoklipa estreinatuko du, Durangoko Azokako Irudienean, 13:00etan. Horrez gain, standa izango du Azokan, eta bertan egongo da egunero, sare soziale-tan jakinarazi duenaren arabera.

Aurresalmenta

Izarok bi formatutan kaleratuko du *Cerodenero*: biniloan (35 €) eta CDan (18 €); eta bere webgunean erosi daiteke dagoeneko (www.izaromusic.com), abeslariak aurresalmentari ekin baitzion urriaren 10ean. Bide hau erabiltzen dutenek abenduaren 8tik aurrera jasoko dute diskoa, abeslariak sinatuta.

Durangoko Azokan erosten dutenek ere, Izaroren sinadura eramango dute *Cerodenero*ren azalean.

Aurkezpen bira


Durangoko hitzordua eta gero, aurkezpen birari ekingo dio Izarok. Hala, urtarrilaren 2an Bilboko Euskalduna Jauregian joko du; 3an eta 4an Donostiako Kursaal Auditorioan; 13an Las Palmaseko Sala Insular de Teatron akustikoa eskainiko du, eta 20an akustikoa baita ere Pozuelo de Alarcóneko Inverfest Teatro Miran. Otsailaren 3an Gasteizko Principal Antzokian egongo da; 9an Bartzelonako Apolo aretoan; martxoaren 2an Sevillako La Cartujan joko du, eta iragarrita dagoen azken kontzertua martxoaren 18 burutuko da, Iruñeako Baularten. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

Izarok iaz kaleratu zuen bere azken diskoa, *Limones de oro*, Amara, Xoel López, Zahara eta Rozalén bezalako artistekin batera grabatutakoa. Haiekin batera, estatu osoan zehar bira egiteko aukera izan zuen, eta Helsinki, Paris, Mexiko Hiria eta Buenos Aires bezalako hiriburuetan egon zen. Disko hari lotutako biran, Anoetako Belodromoko sarrerak agortzea lortu zuen, hau egitea lortu duen lehen emakumea izanik.

Urtarrila eta martxoan bitartean aurkezpen bira burutuko du, eta sarrerak salgai daude dagoeneko



Jon Artanok 'Juana' liburua plazaratu du



Jon Artano zestoarra 'Juana' liburuaren aurkezpenean, Donostian. ELKAR

Jon Artano Izeta kazetariak (Zestoia, 1978) bere lehen liburua argitaratu du, *Juana*, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika bekaren laguntzaz. Kazetaritza "su geldoan" egin nahi zuen Artanok eta horretarako baliatu du beka. Azken asteotan Donostian, Deban eta Zestean aurkeztu du

emaitza, eta Durangon egingo du beste aurkezpen bat, abenduaren 8an (19:00etan).

Juana Perea Plata da liburuiko protagonista, 1937an Bilbotik ihesi Bogotara iritsitako euskal familia batean jaiotako "ardi beltza", legendazko emakume bat. Nera-be zela, etxetik alde egin zuen Karibera. Urpekari profesional

bihurtu zen, belaontzietan bizi izan zen, telebistan produktore lanak egin zituen, Afganistanen ibili zen gerran, hotel bat eraikitzen hasi zen gero... "Oso noizean behin sortzen diren pertsona horietako bat izan zen Juana", laburbildu du Artanok. "Abenturazalea, ausarta, mugarik ezagutzen ez zuena, mugak topatuz gero mugak pasa egiten zituena, erakarpin indar handikoa... Bere senide batek esan zidan bezala, urakan bat zen". 2020ko urriaren 29an tiroz erail zuten Kolonbian, "agian marra bat baino gehiago gainditu zuelako, agian gehiegi nabarmendu zelako".

"Nahikoa bere horretan"

Artanok Anderik Ande izeneko proiektuarekin irabazi zuen iaz Tene Mujika beka. Ameriketara ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta Euskal Herrian dabil-tzan hainbat amerikarrek jasotzea zen hasierako asmoa, eta sei hilabeteko bidaiari ekin zion Argentinan, Txilen, Bolivian, Perun, Ekuadorren eta Kolonbian. Azkenean, ordea, Perearen eta haren familiaren istorioari eman dio liburu osoa, "liburu izateko nahikoa zelako bere horretan".

Tene Mujika eta haren ekarpena, argitara

Tene Mujika bekaren fruitu diren liburuez gain, Robustiana Mujika Egaña, *Tene* (1888-1981) idazle eta olerkari debarraren irudia eta lana ezagutzera emateko bestelako argitalpenik ere izango da aurten azokan. Otsailean aurkeztutako *Tene Mujika emakumea*. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak ikerlana da adibideetako bat.



Nekane Goikoetxea. AIURRI

Mondragon Unibertsitateko irakasle Nekane Goikoetxea Agirrek (Deba, 1970) osatu du lana. Helburua bikoitza izan da. Batetik, Tene Mujika bere garaian kokatuta eta haren soziobiografia aintzat hartuta, bere ekarpenari balio handiagoa eman nahi izan dio egileak; bestetik, Mujikaren azterketan genero ikuspegia txertatu du. Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen bekaekin ondu du ikerlana Goikoetxeak.

Sei disko Gaztelupeko Hotsak diskoetxetik

Euskal musika doinu latinoekin, jazz-a, euskal tradizioaren eta melodien egokitzapenak, Nick Caven bertsoiak... denetarik izango da

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak sei disko izango ditu aurtengo Durangoko Azokan, Zabaltzenen standean.

Sei disko horietatik bi Gaztelupeko Hotsak zigitupean argitaratutakoak dira: Txuma Murugarren entzutetsuarena eta Ache Pa Ti taldearena. Beste hirurak, berriz, Errabal Jazz zigitupean argitaratu dituzte: Javier Lopez Jaso, Iosu Izaguirre Sextet, Giulio Ottanelli Quartet eta Nevermind Quartet.

Txuma Murugarren: Gautegia

Gaztelupeko Hotsak-eko Joxe Felix Azkarate Xarrak nabarmendu duenez, "Gautegia/Nocturama Txuma Murugarrenen diskografiaren mugarri da orain eta gaurtik aurrera. Bere Nick Caverekiko mirespen eta lilura azaltzeaz gain, Txuma bera, egile eta sortzaile berezi bezala dagokion lekuan jarri dezakeena eta jarriko duena. Handien artean, nola ez."

Ache Pa Ti: Bilakatzen

Jazz latino eta kubatar sustraiko musikarekiko zaletasuna Euskal Herriko kultura eta folklore tradizionalarekin uztartzen dituen Ache Pa Ti talde iruindarrak, berriz, *Bilakatzen* izeneko bigarren diskoa argitaratu du. Bertan, "bereziki deigarria da txistuaren presentzia eta garrantzia, bera baita nagusi eta gidari doinu gehienetan, erraztasun eta naturaltasun txundigarritz moldatuz era guzietako doinu eta erritmo latinoetara. Ache yoruba hizkun-



Txuma Murugarren.

tzako hitza da eta *Ache pa ti* eserak zorte on eta zoriontasun nahia adierazten du", azaldu du Xarrak.

Javier Lopez Jaso: Zimelezin

Bestalde, Azkarateren esanetan, Oiartzungo Mecca estudioetan grabatutako proposamenarekin dator Javier López Jaso soinu-jole nafarra Zimelezin diskoarekin. Mikel Andueza saxofonista, Marcelo Escrich kontrabaxua eta Dani Lizarraga bateria-jotzailea moduko musikari eta lagun handiez inguratuta, bidaia moduko bat planteatzen du. "Javier beraren kantu originalekin batera, euskal tradizioaren erritmoen eta me-

lodien egokitzapen bikain eta sofistikuak, eta mitologia kutsuko kantu herrikoiak (Axuri Beltza, Txoria txori) aurki ditza-gegu bertan".

Iosu I. Sextet: Mingus Mood

Iosu Izaguirre Sextet taldeari dagokionez, "Mingus maisuaren musika diseinatu eta osagai txiki eta sinpleen etara murriztu du, haiekin omenaldi modukoa eraikiz eta "guztiz Mingus" bat aurkeztuz", dio Gaztelupeko Hotsak-eko Xarrak. Gaineratutakoaren arabera, Iosu Izaguirrek konposatutako zortzi doinuz osatutako lana da *Mingus Mood*, Gas-teizen 2022an grabatuta, Vital Fundazioaren Araba Aretoan.

Giulio Ottanelli Quartet

Getxoko Jazzaldien 46. edizioan talde onenaren saria Giulio Ottanelli laukoteari eman zitzaion. Parisko goi mailako kontserbatorioan ezagutu zituen Jeremie Lucchese (saxo tenorra), Cyril Drapé (kontrabaxua) eta Emile Rameau (bateria), eta eurekin sortu zuen laukotea; eurak ere izango dira presente Duangoko azokan. "Taldearen musika, euren emanaldiak hain erakargarri egiten dituzten melodia luzeetan oinarritzen da", dio Xarrak.

Nevermind Quartet

Azkenik, Xarrak nabarmendu duenez, Euskal Herriko jazz eszenan presentzia handiko musikariarik dira Nevermind Quartetekoak. Hasier Oleaga The Heckler-en, Teresa Zabalzaren boskotean edo Ruper Ordorikaren eta Mikel Laboaren ondoan aritu izan da, Julen Izarra Trizak taldean, Jorge Abadías hainbat ekimen biltzen dituen ibilbide luzearen jabe da eta Aritz Luzuriaga Bilboko JC Arriagako kontserbatorioko irakaslea da, besteak beste.




Debarreneko uzta



NEREA LOIOLA PIKAZA
'Idatzi behar nizkizunak'

Erroa argitaletxea.



NEREA LOIOLA PIKAZA
'Azken denbora'

Bilduma: Eskapu liburuak, 2. Erein argitaletxea.




ANE BASTIDA LIZASO
'Hideane eta bere lagunak'

Ilustrazioak: Nadia Beltran de Lubiano. Denonartean argitaletxea.




GOIZANE AIZPURUA IBAÑEZ
'El reflejo de la tibieza'

Alberdania argitaletxea.



JON ARTANO IZETA 'Juana'


Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.




NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE

'Tene Mujika emakumea.
Pizkundetik ahanzturara: XXI. mendetik ateratako postargazkiak'

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



TIRO 'Gure irtenbidea'
TAE Records diskoetxea.



JOKIN BERGARA 'Adaxka lehorrak. Talca ekosozialaren biharamun politikoak'
Xtalaparta argitaletxea.



KVALVIKA 'KVK'



OLAIA IRIGOIEN 'Inesa Gaxen'
Adapta argitaletxea.

OLAIA IRIGOIEN 'Misión Don Quijote y Sancho Panza'
Adapta argitaletxea.



UXUE ALBERDI ETA DANELE SARRIUGARTE 'Zirriborroak eta gero'
Consonni argitaletxea.




UXUE ALBERDI 'Surflaria'
Ikastolen elkarte.

Uxue Alberdi
Begoña Durruty
BELARRIKO KILKERRA



UXUE ALBERDI 'Belarriko kilkerra'
Elkar argitaletxea.



JASONE OSORO 'Arrakasta'
Elkar argitaletxea.



MUSIKA



AMORANTE 'Harri, herri, har'
Forbiden colours argitaletxea.

MALLABIA

MUSIKA



IZARO 'Cerodenero'

ERMUA

LITERATURA

GORA GURE ALKATE
JAKINTSUA!

Txabi Arnal - Edu Zelaieta - Herri



elkar

TXABI ARNAL ETA EDU ZELAIETA
'Gora gure alkate jakintsua!'
Elkar argitaletxea.



JOSEBA SARRIONANDIA 'Markos
Gimenozen 101 letrakartel'
Pamiela argitaletxea.

SORALUZE

MUSIKA

TXUMA MURUGARREN
Rafa Aceves | Miguel Ramirez | Oriol Flores | Angel Unzu



GAUTEGIA

TXUMA MURUGARREN 'Gautegia'
Gaztelupeko Hotsak.



ACHE PA TI 'Bilakatzen'
Gaztelupeko Hotsak.



JAVIER LOPEZ JASO 'Zimelezin'
Errabal Jazz.



IOSU IZAGUIRRE SEXTET 'Mingus
Moods'
Errabal Jazz.



GIULIO OTTANELLI QUARTET
'Getxo Jazz 2023'
Errabal Jazz.

NEVERMIND QUARTET 'Boost lau
gara'
Errabal Jazz.

MUZAK 'Irabaziak eta galerak'

"Daukagun zarata guztia aterako dugu Ahotsenean"

JOANES IÑURRIETA BOKALISTA

Ahotseneako oholztan izango diren 49 taldeen artean, bat, Muzak, Debabarrenekoa da. Abenduaren 10ean, 15:40an egingo dute zuzeneko

Muzak taldeko Joanes Iñurrieta (Soraluze, 1991), Ruben Irigoyen (Elgoibar, 1991) eta Aitor Sagarmendi (Mutriku, 1994) "pozik" daude aurten Durangoko Azokako Ahotsenean egon ahal izatea lortu dutelako. Joanes Iñurrieta taldeko bokalista soraluzetarrak azpimarratu du Durangon taldeak duen "zarata guztia" aterako dutela.

Ahotsenean kontzertua eskaintzea beste jauzi bat izango da Muzak taldearendako?

Durangoko Azoka, Euskal Herri mailan, oso hedabide ona da, artista baldin bazara, batez ere. Urteko ekimenik potenteena da kulturalki musikaren eta liburuen arloan eta hor egotea oso garrantzitsua da. Iaz, saiatu ginen Programaturik lanarekin Ahotsenean sartzen, baina ez genuen lortu. Aurten pozik gaude lortu dugulako eta han egongo garelako.

Zer eskainiko duzue Ahotsenean?

25-30 minutuko kontzertua izango da, lauzpabost abesti joko ditugu guztira. Ez da izango kontzertu akustikoa. Daukagun zarata guztia aterako dugu.

Denetik joko duzue?

Aurten atera dugun *Irabaziak eta Galerak* (Gaztain Estudioak) EPan oinarritutako zuzeneko izango da eta oporren aurretik publikatu genuen *Gezur Mila* singlea ere sartuko da. *Irabaziak eta Galerak* EPari dagokionez, *Programaturik* (Gaztain Estudioak, 2021) laneko abesti guztiak ere baditu.

Bigarren EPan zuen bi lanetako kantu guztiak batu dituzue?

Bai. Kontua da lehen diskoarekin, *Programaturik*-ekin ez genuela atera disko fisikoa eta gero damutu egin egin ginela. Hala, *Irabaziak eta Galerak*-ekin CDa atera genuen. CD horrek dauzka lau abesti berri

gehi bonus modura, *Programaturik*-eko zazpi abestiak gehigarri.

Eta zuen CD hori erosteko aukerarik izango da Durangoko Azokan?

Bai. *Irabaziak eta Galerak* salgai egongo da azokako Musika Zuzenean-en standean.

Zergatik damutu zineten diskoa atera ez izanaz?

Disko fisikoa gaur egun ez da asko saltzen, baina gertatu izan zaigu momentu puntaletan jendeak eskatu izana eta pena horrekin geratu ginen, fisikoa nahi duen horri diskoa ezin emanarekin,

"Durangoko Azoka da urteko ekimenik potenteena musikaren eta liburuen arloan"





guretzat zerbait berezia ere bada guri disko fisikoa eskatzea. Tabernetan edota aretoetan lagatzeko ere aproposa da... Kasu gutxi izan arren, CD fisikoa ateratzeak me-rezi zuela erabaki genuen. Ehun ale atera genituen, hogeitik behera geratzen dira eta oraingoz ez dugu kopia gehiago ateratzeko asmorik.

Gezur mila singlea uda aurretik dago entzungai, zelako harrera izaten ari da ?

Harrera oso ona izan dugu. Hori ikusi dugu plataforma digitaletan, oso ondo kontabilizatzen dira entzunaldiak. Spotifyn, adibidez, erreprodukzio gehien izan dituen Muzak-en abesti arrakastatsuen da. Horrez aparte, kritika onak izan ditugu, batez ere gertuko jendearenak. Gure soinetik jarraitzen dugu. Taldearen nortasun propioa erakusten du.

Zein da zuen nortasun hori?

Hirurok oso gaztetatik izan dugu bereziki distortsionatutako gitarrakiko predilekzioa hori, talde ezberdinak entzuten ditugun arren. Nik Pop-Rock-era egin izan dut beti gehiago eta Ruben eta Sagarrak Metal-era (progresiboa, death, doom...).

Gainera, proiektu oso ezberdinetan izandakoak gara Muzak sortu aurretik. Zergatik uste duzu azken single horrek izan duela arrakastarik handiena?

Musikari moduan pauso txikiak ematen goaz pixkanaka-pixkanaka eta geroago eta difusio handiagoa lortzen ari gara. Horrez aparte, abesti ona da, denbora inbertitu dugu single horretan, lana dauka eta entzuteko gustoso da. Bestalde, saiatzeko gara konstantzia mantentzen, abestiak publikatzerakoan, sare sozialetan idazterakoan... Hor egon behar duzu, bestela...

Aitor Sagarmendi, Joanes Iñurrieta eta Ruben Irigoyen.

Sare sozialak zaintzen ibiltzen zarete, justu zuek 'Gezur Mila' kantuan kritikatzeko dituzuen sare sozial horiek...

Bai, abestiak kritika hori egiten du. Kontziente gara sare sozialek pertsonengan duten eraginean, baina horren konplize ere bagara. Paradoja moduko bat da.

Urriari eskaini duzue aurtengo biraren azken kontzertua; non egon zarete gusturen?

Su ta Garrekin Elgoibarren, edo gustuko ditugun bestelako taldeekin. Adibidez, Bergarako Kartzela Zaharrea, Sofa eta Dena taldeekin jo genuen.

Abenduan Ahotsenean jo ondoren, baduzue bestelako asmorik taldearendako?

Zuzenean jotzea. Normalean ez diegu ezezkorik ematen joteko aukerei eta beti gaude zabalik proposamenetarako. Bestalde, sortzen ere hasi gara dagoeneko. Ez dugu erabaki zer izango den, diskoa ala singlea, baina sortzen ari gara eta hori garrantzitsua da. Sortutako lanaren helburua gure buruak asebetetzea izaten da, eta ez da erraza izaten oso zorrotzak garelarako horretan.

"Gezur mila da erreprodukzio gehien dituen Muzak-en abestia"

"Krisi ekologikoak krisi sozialak eragiten ditu gizarte kapitalista honetan"

JOKIN BERGARA SOZIOLOGOA ETA IDAZLEA

Gogoeta soziologikoak, politikoak eta pertsonalak tartekatuz, trantsizio ekosozialaren tentsio-ardatzak aurkezten ditu eibartarrak 'Adaxka lehorrak' liburuxkan. Abenduaren 8an, 17:30ean, izango da aurkezpena.

"Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak' da liburuaren izenburua. Biharamun horiek bizi ditugu dagoeneko? Heltzeaz daude? Zein momentutan aurkitzen gara?"

Talka ekosozial hori pizten ari gara eta biharamunaren kontzeptua erabili dut, modu metaforiko baten esateko horrek ondorio sozial eta politiko batzuk ekarriko dituela eta ekartzen ari dela jada. Krisi ekologikoan sakondu ahala, geroz eta maiztasun eta indar gehiagorekin joango gara bere ondorioak ikusten, bai klimaren aldetik, bai krisi energetikoaren aldetik, baita ondorio politikoaren aldetik ere. Azken horrekin lotzen dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsu eta gerrazalea, besteak beste.

Krisi ekologikoa aztertzeaz gain, zer bide zabaldu daitezkeen irudikatzen saiatu zara. Zeintzuk dira bide horiek?

Gai hau bada beldurra sortu dezakeen gai bat. Batzuek paralizatzailea dela diote. Beraz, eraldaketan sinesten dugunok, eraldaketa horri bizirik eusteko aldarria egiten dugu liburuan. Eta zer bide hartu dezakegun? Hainbat proposamen egiten dira. Adibidez, industria, gaur ezagutzen dugun bezala (Debabarrean makinaren erremintari eta automozioari oso lotuta dagoena), oso sektore kutsatzailea da, eta liburuan ariketa bat egiten da birmoldaketa nola egin pentsatzeko, ikuspegi demokratiko batetik. Hau da, trantsizio ekosoziala erabiltzea enpresak

"Krisi ekologikoaren ondorio dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsua"

demokratikoagoak izateko (aberastasuna gehiago banatzeko langileen artean, adibidez). Horrela, behar dugun trantsizio kulturalari bideratuta dago liburuaren zati handi bat. Gaur egun 'bizitza ona' bezala identifikatzen dugun horri eta gure identitatea eraikitzeke erabiltzen ditugun ekintza horiei kritika egiten zaie (kontsumoari, oporretara joateko 10 orduko bidaiak egiteari, auto eta etxe berriak erosteari...). Gure identitatea eraikitzeke beste mekanismo batzuen beharra agertzen da, lasaiago bizitzeko aldarria, eta gutxiagorekin bizitzea ez dela zertan izan okerrago bizitzea, baizik eta hobeto bizitzea, denbora gehiago izan dezakegulako lagunekin egoteko, gurasoak edo seme-alabak zaintzeko, irakurtzeko edo gustuko dugun edozer gauza egiteko. **Beraz, trantsizio ekosozialak hainbat arlo ezberdin zeharkatzen ditu?**



Abenduaren 8an aurkeztuko du liburua Bergarak Durangoko Azokan. TXALAPARTA

Bai, noski. Hori da krisi ekosozialaren ideia. Hau da, badago krisi material bat, ekologikoa bezala definitu daitekeena zientifikoki (klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, energia krisia, baliabideen agortzea...); eta gero, alde soziala dago, oinarri material guzti horren krisiak krisi sozialak eragiten dituelako sistema kapitalista honetan. Hor sartzen da gizartea beste modu baten antolatzeke eztabaida eta, noski, politika, soziologia, historia, ekonomia, zuzenbidea... Denetik, azken neurrian.

Liburua Euskal Herrian kokatzen da edo mundu mailako arazoak lantzen dituzu?

Krisi ekosozialari Euskal Herriak begiratzen saiatu naiz, jakinda maila globalean adierazten den gaia dela. Gure herriaren ezaugarriak kontuan hartuta, Euskal Herrira ekartzen saiatu naiz, eta honek gure herrian zein tentsio

nagusi sortzen dituen. Adibidez, energia berriztagarrien inguruan dagoen eztabaida hau da: "jarriko ditugu?", "ez?", "non?". Nire ustez, zabaldu behar den eztabaida hurrengo izan behar da: Energia berriztagarriak lortzeko behar ditugun mineralak hegoalde globaletik ateratzen ditugu, nolabaiteko neoestraktibismo prozesuetatik, eta gure trantsizio berdea pentsatzeko herrialde horiekin nola harremanu beharko ginatekeen eztabaidatu beharko genuke. Adibidez, Ekuadorreko Amazonian badago egur mota bat oso ona omen dena haize-erroten

"Ekuadorreko Amazonia ari gara deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko"

palak ekoizteko (asko irauten baitute eta ez direlako azkar higitzen). Orduan, gertatzen ari dena da Europako eta AEB-ko enpresak sartu direla han lehengai hori erostera eta, ondorioz, Ekuadorreko Amazonia ari garela deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko. Paradoxikoa da.

Liburuxka arina egiten saiatu zarela aipatu izan duzu. Gaia gehiago garatzeko gogoarekin geratu zara?

Liburuxka hauen helburua (eta hortik bere formatua) eserialdi baten irakurtzeko modukoak izatea da. Hau da, arratsalde baten hiru-lau ordutan irakurtzeko modukoak izatea. Idazteko eskatu zidatenean hori izan zen arazoa: zertan zentratu, zeri garrantzia eman... Orduan, liburuxka motza denez, laburtzea pixka bat kostatu zait eta, agian, gauza batzuk behar duten sakontasunik gabe joan dira, baina tira, sintetizatze lan batek hori eskatzen du.

Beraz, oso sakona den gai bati heltzeko balio dezake? Krisi ekosozialaren inguruan sakontzen hasteko baliagarria da?

Hori da. Ez da gaiaren inguruko doktoretza tesi bat. Gehiago da gai honetan hasi nahi duenak edo interesa duenak hartzeko eta modu azkar baten gaian sarrera bat edukitzeko.

Ahotseneako musika egitaraua

Asteazkena 06



NØGEN 11:00-11:30

KONPOST 12:10-12:40

ESANEZIN 13:20-13:50

LILLO 14:30-15:00

POSTAL KOLEKZIONISTAK 16:50-17:20

AKALEIA 18:00-18:30

YOGURINHA BOROVA 19:10-19:40

MARLIK 20:20-20:50

ARIMA 21:30-22:00

Osteguna 07

XABI SAN SEBASTIAN 13:20-13:50

KADIRA 14:30-15:00

BRAULIO 15:40-16:10

MURGI 16:50-17:20



MOXAL 18:00-18:30

ZATIBI 19:10-19:40

ZEKER 20:20-20:50

EZEZEZ 21:30-22:00

Ostirala 08

LOTURA 11:00-11:30

EIDER 12:10-12:40

EIRE 13:20-13:50

MIREN ETA ROBERTO

ETXEBARRIA 14:30-15:00

NAKAR 15:40-16:10

ITHAKA 16:50-17:20



SARA ZOZAYA 18:00-18:30

TXOPET 19:10-19:40

SILITIA 20:20-20:50



TOC 21:30-22:00

Larunbata 09

KE LEPO 11:00-11:30

TRB 12:10-12:40

AMORANTE 13:20-13:50

LEIHOTIKAN 14:30-15:00

HAIZE-ARROSA 15:40-16:10

OTOI 16:50-17:20



ETXEPE 18:00-18:30

RUKULA 19:10-19:40

FELINE 20:20-20:50



IBIL BEDI 21:30-22:00

Igandea 10

INTZA 11:00-11:30



MAMU 12:10-12:40

KARMA 13:20-13:50

HAIRA 14:30-15:00

MUZAK 15:40-16:10

KUMA NO MOTOR 16:50-17:20



MODUS OPERANDI 18:00-18:30

KEMARONTE 19:10-19:40

MUARE 20:20-20:50

JABI PATXON ETA KOFRADIA

ROCK 21:30-22:00

Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia egingo du Andres Alberdik bihar, Getarian

Euskaltzaindiak 2022ko azaroaren 26an izendatu zuen Andres Alberdi Gorostiaga hizkuntzalari (Getaria, 1950) euskaltzain oso, eta bihar, Akademiaren barne-arauek agintzen dutenari jarraikiz, sarrera-hitzaldia egingo du, Getariako udaletxean.

Salbatore abesbatzak irekiko du ekitaldia, 12:00etan. Atariko saioaren ostean, ekitaldi instituzionala hasiko dute. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Haritz Alberdi Getariako alkateak ongiatorria egingo diete bertaratutakoei eta, jarraian, Andres Alberdik *Arauen itsasoan barna. Araua al da dena?* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurriko du. Arauekin izan duen bizipen pertsonalez eta harremanez ariko da lehen partean. Bigarrenetan, araugai berri batzuen demandan ariko da, eta eskari edo aldarrikapenarekin batera, hausnargai, euskararen eta arauen gaineko kezka eta gogoeta batzuk aletuko ditu. Mikel Zalbide euskaltzain osoak erantzungo dio gero, eta karguaren zina egingo du azkenik.



Zabalik dago Mendaroko ipuin lehiaketan parte hartzeko epea

Euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Hiru mailatan banatu dute lehiaketa. LH1etik LH4ra artekoiei ipuin bat emango diete eta harentzako irudi bat sortu beharko dute. A4 tamainako orrian egin beharko dute marrazkia parte-hartzaileek, edozein teknika erabilita. LH5etik DBH2ra artekoiek alderantzizko lana egin beharko dute: ilustrazio batetik abiatuta, ipuina sortu. DBH3 eta DBH4ko ikasleek, berriz, komiki bateko testua osatu beharko dute. Materiala, bai ipuinak zein ilustrazioak, udaletxean, liburutegian eta gaztelekuan daude eskuragai. Testu guztiak euskaraz sortu beharko dira eta abenduaren 3rako aurkeztu beharko dira udaletxean, posta arruntez, edota posta elektronikoz kultura@mendaro.eus helbidera idatzita. Bertan, izen-abizenak, ikastetxearen izena, maila eta telefona zehaztu beharko dira.



Erabili meloia

Ez egin erosketak oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



Euskadi, auzolana, bien comin
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


www.kontsumobide.eus

Euskarazko ahotsak jasotzeko grabazioak egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan, euskarazko ahotsak grabatzeko saioak antolatu dituzte abenduaren 1 eta 2rako, Mendaron eta Elgoibarren, Jaurilaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak martxan jarri duten *Gaitu* kanpainaren barruan. In Leike kultur elkarteak arduratuko da abenduaren 1ean Mendaron grabazioak egiteaz, eta Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala daude Elgoibarren egingo duten grabazio saioaren atzean.

Mendaron, jubilatuen lokalean egongo dira In Leike kultur elkartekoak ekimenean parte hartu nahi dutenei laguntzeko gertu, 17:00etatik 18:30ak bitartean, eta ondoren, kalez kaleko erromeria izango dute EinGO taldearekin, Udalak antolatuta. Elgoibarren, berriz, Aita Agirre kulturgunean jarriko

dute grabaziorako lekua abenduaren 2an, 11:00etatik 13:00etara, eta Brilet talde elgoibartarraren kontzertuarekin emango diote amaiera. Elgoibarko saioan parte hartzeko aurrez izena emateko eskatu dute kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita edota 643 499 169 telefono zenbakira deituta. Ahots grabazioa egiteko prest dauden herritarrek euren gailua (sakelako telefonoa, ordenagailu eramangarria) eta aurikularrak eraman beharko dituzte.

Ekimen honetarako gaitu.eus webgunea sortu dute Gaituren sustatzaileek eta atari horretan sartuta bi eginkizun proposatzen dituzte: batetik, idatzita dagoen esaldi bat irakurtzea, eta bestetik, beste hiztun batek aurrez grabatutako esaldi bat entzun eta ontzat ematea.



Basauriko argazki maratoian bigarren saria lortu du Jose Ramon Cabrerak

Basauriko Bridgestone argazki maratoian bigarren saria eskuratu du Jose Ramon Cabrera elgoibartarrak. 50 bat parte-hartzaile izan ziren eta guztira 150 argazki aurkeztu zituzten sariketara. Lehiaketa Urtzi Verak irabazi zuen, eta haren atzetik Jose Ramon Cabrera eta Elena Perezen bi argazki saritu zituzten. Parte-hartzaileak 10:00etarako agertu behar ziren herrian eta antolatzaileek emandako hiru gairen inguruan egin behar zituzten argazkiak: Ongizatea, Ingurumena eta Bide Segurtasuna. Cabrerak 200 euro eta Basauriko merkatarien elkartearen produktu sorta jaso zituen saritzat.

Zabaldute Elgoibarko ludoteka berria

Astlehenean zabaldute zuten Elgoibarren ludoteka berria, Bolatokiko parkean. Dj Kaktusek eman zion hasiera inaugurazio ekitaldiari eta dantzan jarri zituen umeak. Ondoren, dozenaka puxika banatu zituzten eta lehertzen ibili ziren. Amaitzeko mokadua egin zuten. Martitzenean, bestalde, Treba gurasoak programaren barruan *Komunikazioa familian* izenburuko hitzaldia eman zuten, eta eguaztenean, hasi zuten ludoteka berrian ohiko jarduna. Aurrerantzean, doako zerbitzua eskainiko du ludotekak.



Irundik Baionara egingo du 23. Korrikak, martxoaren 14tik 24ra

J oan zen egunean aurkeztu zituen AEK-k 23. Korrikaren xehetasun batzuk, Donostian egin zuten agerraldian. Aitziber Balantzategik, AEKren Artezkaritza Kontseiluaren lehendakariak, eman zituen argibideak, eta zehaztu zuen Irunen hasiko dela euskararen aldeko martxa, martxoaren 14an, eta Baionan bukatuko dela, martxoaren 24an.

Hamar gau eta 11 egun izango ditu aurtengo Korrikak eta *Harro herri* lelopean gurutzatuko du Euskal Herria, nahiz oraindik ez dituzten ibilbidearen inguruko xehetasunak eman. Aurtengorako aukeratu duten leloaz Balantzategik esan zuen beren hizkuntzaz harro dagoen euskal komunitateari egiten diola erreferentzia. Horren harira, ohartarazi zuen, baina, ez dela komeni harrotasuna konformismoarekin nahasterik, eta



bereziki erakundeei erreparatuta esan zuen ardura garrantzitsua dutela euskararen normalizazioan. Balantzategik Korrikako omenduaren berri ere eman zuen. Baxoa eta brebeta euskaraz egin ahal izateko Ipar Euskal Herriko gazteek hasitako borroka omenduko dute aurten, Azterketak Euskaraz kolektiboa.



'Amarau' antzezlanaren taularatuko dute gaur

Amarau antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur arratsaldean Herriko Antzokian. Amatasunaren inguruko hausnarketa bat proposatzen du obrak, eta horretarako musika, kantua, bertsoak eta dantza uztartuko dituzte. Ez da dantza ikuskizun soil bat, eta ezta bertso emanaldi bat ere. Diziplinarterko bidaia bat da; bidaia hipotetiko bat amatasunean zehar. 19:00etan hasiko da ikuskizuna.

EinGO taldearekin kalez kaleko erromeria antolatu dute Mendaron

Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a, eta horren harira, erromeria antolatu du abenduaren 1erako Mendaroko Udalak In Leike taldearen laguntzarekin (18:30-20:30). EinGO taldea gonbidatu dute giroa sortzera. Iparraldeko zein hegoaldeko plazetan, dantzatu izan diren piezak joko dituzte EinGO taldekoek, eta taldekide batek oinarritzko pausoak ere erakutsiko ditu momentuan, plazara batzen diren guztiak dantza egitera animatuz. Sokan, lotuan, soltean, jauziak, kontradantzak, joko-dantzak... denetarik izango



dela aurreratu dute. Ezagunak dira Mendaron EinGokoak, iaz ere etorri zirelako Euskaraldia ariketa soziala sustatzeko kanpainaren baitan.

Musika eta dantza, Santa Zeziliaren omenez



Musika emanaldi ugari egin dituzte egunotan Elgoibarren eta Mendaron Santa Zeziliaren omenez, eta ospakizunak amaitzeko, bihar, hilak 25, kontzertu berezia emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak Herriko Antzokian, 13:00etan. Gorka Mujika Urainek zuzenduko du kontzertua eta Serafin Zubiri musikari nafarrak parte hartuko du. Kontzertuaren aurretik, baina, kalejira egingo dute Udal Musika Bandakoek, 10:30ean hasita. Iluntzean, berriz, San Bartolome parrokiako abesbatzak kontzertua emango du parrokian, 19:00etako meza ostean. Mezan ere parte hartuko dute, eta ondoren, hainbat kantu abestuko dituzte, Txomin Maidaganek zuzenduta. Motiboa baliatuta, abesbatzara batzeko deia egin diete elgoibartarrei eta entsegetara agertzeko eskatu diete interesa dutenei. Entseguak astelehenean egiten dituzte 20:15ean, Trenbide Kaletik sarrera duen parrokiako lokalean.

Astebeteko jai

Joan zen asteburuan hasi zituzten zaindariaren omenezko ekintzak Mendaron. Bariku iluntzean,

Bizi-Poza txarangakoak ibili ziren kaleak girotzen, eta kide berri bat gehitu zitzairen taldera, gainera, estreinakoz: Andoni Ariznabarreta soraluzearra. Santanetan debuta egin zuen Anderren anaia da Andoni, eta tronboia jotzen du. Anaiak bezala, Soraluzeko txaranga ere jotzen du Andonik, bai eta Eibarko Udal Musika Bandan ere. Txarangakoek ondotik, domekan, Ameikutz musika eskolako txistulariak irten ziren kalejiran, eta astelehenean, emanaldi berezia egin zuten musika eskolako trikitilarien taldeak eta Mendaroko Gazteak dantza taldekoek frontoian, eguraldiatik iragarrita zuten kalejira bertan behera laga ostean.

Elgoibarren ere, emanaldi bereziak egin zituzten Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalek astelehen eta martitzenean. Eguaztenean, berriz, Maalara irtetekoak ziren kantura Elgoibar Ikastolako ikasleak, baina eguraldiatik ikastetxean egin behar izan zuten azkenean jaialdia. Atzorako, bestalde, Betisua txaranga ere Inazio Bereziartua Musika Eskolako trikitilarien kalejira zegoen iragarrita Kalegoen plazatik Maalako parkeraino.

PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

azaroak
25 Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzekoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa bere eskuetan utzi.

900 840 111 ^{24h}
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera,

Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Opari zoragarriak ari gara jasotzen!
Eskerrik asko!



Justin Hiriart[™]
komikiak



Xaboiak



MUZAK taldearen
cd-a eta kamiseta



Margoak



Sehaskarako
izarak



Poltsak



Txiskeroak



Estutxeak



Kandelak



"Elosua-Plazentzia"
liburuak



943 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Aritz Unamuno eta Ainhoa Lendinez izan dira azkarrenak Karakateko Igoeran

👤 Ainhoa Andonegi / Asier Orbea

Jendetsua izan da 29. Karakateko Igoera, 100 mendi lasterkarik hartu baitzuten parte Morkaikok antolatzen duen mendi lasterketan. 2014. urteko proban izan zen parte-hartzerik handiena, 119 lagunekin, eta harrezkero partaideen kopuruak ez du 90 lagunengain gaiturik: 67 (2022), 78 (2021), 56 (2019), 70 (2018), 70 (2017), 75 (2016), 88 (2015) eta 119 (2014). Eguraldia lagun, ikusleek ere ez zuten hutsik egin eta lagun ugari batu ziren azken metroetan, lasterkariei azken ahaleaginean laguntzeko. Aritz Unamuno (Bergara, 2000) izan zen Kalegoengo frontoiko frontisetik abiatu eta tontorrera ailegatzen azkarrena -27'51"- . Unamunok duela lau urte hartu zuen parte Karakateko Igoeran estreinakoz, baina hurrengo edizioetan ez da etorri eta ez zen ibilbideaz gogoratzen. Kanpoan ari denez ikasten, ez du tarterik izan bertatik bertara probatzeko ere, eta sarean, online, bilatu zituen erreferentzia batzuk, eta bidean korrikalariak animatzen

zegoen jendeak esandakoak kontuan hartuta egin zuen tontorrera arteko bidea: "Igoera egiteko bide ohikoa dena egin dut, erreferentzia horiek hartuta. Oso gustura egin dut. Entrenatzen ibili naiz, ondo, indartsu nago, eta mendian asfaltoan baino hobeto ibiltzen naizela jakinda, gustura egin dut, bai. Gainera, igotzen hobea naiz jaisten baino". Igoera sei alditan irabazitakoa den Iñigo Lariz sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik 45 segundora; eta, Iñaki Goenaga soraluzearra izan zen hirugarrena, Unamunorengandik 50 segundora.

Emakumezkoetan Ainhoa Lendinezek irabazi zuen, 35:48ko denbora eginda. Hirugarren garaipena da Lendinezentzat. Alex Berguari eman zioten aurpegi onenaren saria, eta Elisa Chiroquek irabazi zuen aurtengo sari berezia, irabazleak egin zuen denbora bikoizteagatik, pasatu gabe. Karakateko Igoeraren laburpen-bideoa osatu dugu herritarren eta parte-hartzaileen laguntzarekin, **barren.eus** atarian dituzue bideoa eta argazki guztiak.



Egokran taldeko judoek emaitza onak eskuratu dituzte Anaitasuna Txapelketan



Euskal Herria, Katalunia, Gaztela eta Leon, eta Andorrako infantil eta kadete mailetako judoek parte hartu zuten zapatuan Iruñean jokatu zuten Anaitasuna I. Txapelketan. Elgoibarko Egokran Judo Taldeko hiru gaztetxok hartu zuten parte eta emaitza onak eskuratu zituzten. Anartz Mora Cuadrado brontzeko domina lortu zuen infantilen 46 kiloz azpiko mailan. Bost borrokaldi egin zituen eta bakarria galdu zuen, finalerdietako lehia. Finaletik kanpo gelditu ostean, hirugarren

postua erabakitzeko borroka irabazi zuen Morak. Aner Taboada Sarmiento ere infantiletan lehiatu zen, 50 kilo baino gutxiagoko mailan. Jokatu zituen hiru borrokaldietatik bakarria irabazi zuen eta ezin izan zuen ligaxka fasea gainditu. Azkenik, Oier Sorazu de la Flor kadeteen 73 kilo baino gutxiagoko mailan aritu zen. Ligaxkan aurrera egin eta final-zortzirenetako kanporaketa galdu zuen arren, errepeskan brontzeko domina irabaztea lortu zuen.

Basarteko skate parkearen bosgarren urteurren festa egin zuten barikuan



Gero eta gehiago dira skate-aren inguruko moda, filosofia, aisia eta, finean, bizimodua duten herritarrak, eta horren ondorioz asko ugaritu dira skate parkeak han eta hemen. Elgoibarkoa duela bost urte inauguratu zuten.

Skaterrek festa batekin ospatu zuten bosgarren urteurrena. Musikaz girotu zuten ekitaldia eta ez zen saririk eta jan edanik falta izan. Eta, garrantzitsuena, jauzi eta trukoak eginez gozatu zuten.

Aitziber Olaizola eta Sergio Rodriguez, Euskal Herriko txapeldun



Lasturko bolatokian jokatu zuten zapatuan Euskal Herriko 33. Hiru-Txirlo Bola Joko Txapelketako azken jaurtialdia, eta han erabaki ziren kategoria desberdinetako txapeldunak. Txapelketa hau behin baino gehiagotan irabazi duen Angel Ibarluzea elgoibartarra txapela janzteko aukera handiekin heldu zen azken jardunaldira, abantaila dotorea pilotuta. San Migel taldeko bolariak 22 txirlo bota zituen aurrez jokaturako bost jardunaldietan, eta azken jardunaldira sailkapen nagusiko bigarren postuan ailegatu zen, Sergio Rodriguez eibartarrak baino bost txirlo gehiagorekin. Bolari eibartarrak, baina, Lasturko azken tiraldia irabazteaz gainera, sailkapen nagusia irauli

zuen. Plenoa egin zuen Lasturren, hiru tiraldietan bederatzi txirlo botata. Hala, 26 txirlo bota ditu guztira txapelketan, inork baino gehiago, eta berak jantzi du txapela. Ibarluzeak hiru txirlo bota zituen Lasturren, eta Rodriguezengandik txirlo bakarrera gelditu da sailkapen nagusian, txapeldunorde. Markina-Xemeingo MX3T taldeko Lander Odiagarentzat izan da hirugarren postua, 22 txirlorekin. Emakumezkoetan sailkapen nagusiko lehen postuari eutsi zion San Migel taldeko Aitziber Olaizola elgoibartarrak. Txapelketa hau irabazi zuen lehen emakumezkoa izan zen Olaizola 2021ean. Aurtengo txapelketan 15 txirlo bota ditu guztira, Isana Gorosabelek eta Olatz Rodriguezek baino hiru gehiago.

Irudi eta izen berriarekin hasiko du denboraldia CATT Morkaikok

Iaz Casa Astigarraga Trail Taldea moduan jaiotzen zen proiektuak izen eta irudi berriarekin hasiko du mendi lasterketen denboraldia 2024an. Taldeak hasieratik izan dituen bi babesleen izenak batu eta CATT Morkaiko izango da taldearen izen berria aurrerantzean. Astigarraga kirol etxearen eta Morkaikoren batura, alegia. Izenarekin batera logotipo edo marka berria ere estreinatu dute. Horrez gain, taldera batzeko atak zabalik dituztela jakinarazi dute. Hemezortzi lagunentzako lekua dute taldean eta interesdunek Instagram sare sozialean duten kontuaren bidez jarri beharko dute eurekin harremanetan, @cattmorkaiko kontuan, edota email bitartez cattmorkaiko@hotmail.com helbidera idatzita. "Eskaeren ordenari jarraituz, hurrengo denboraldirako informazio guztia agertzen den formulario bat bidaliz erantzungo diegu interesa agertzen dutenei, 18 lekuak bete arte", azaldu dute. Abenduaren 17ra arte eman daiteke izena. Modalitate guztietako korrikalariak animatu dituzte taldekide egitera: "Ez dugu profil zehatz bat bilatzen, baina bereziki emakumeak animatu nahi ditugu taldera batera".



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko nahiz orduka garbiketa lanak egiteko prest nago. **631 489 128**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka eta asteburuetan. Beharrezkoak den titulazioa daukat. **631 020 169**

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. **631 229 408**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **674 535 912**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. **604 910 708**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan, asteburuetan edo orduka jarduteko prest. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **631 489 128**

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan edo arratsaldeetan. **632 065 398**

Adinekoak zaintzeko prest nago, egunez zein gauez, orduka. **605 402 030**

PARTIKULARRAK

Batxilergoko ikasle bati Matematika eta Fisika irakatsiko lizkiokeen norbaiten bila nabil, Mendaron. **688 649 596**

Eskaintza

Elgoibarren estetika sektorean lan egiten duen pertsona autonomo baten bila nabil lokala konpartitzeko. Coworking. **624 646 336**

Mendekotasun egoeran dagoen pertsona bat zaintzeko langilea behar dugu. **615 891 218**


Umea zaintzeko pertsona euskaldun baten bila nabil. **688 639 371**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).
Autoak saltzea: 18€ .
Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).
Autoak saltzea: 15€.
Bestelakoak: 8€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p><small>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Fincas Euzkoako Finantza Administrazioaren Lurralde Kontseilua</small></p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><small>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</small></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Nire komunitatean, bilera bat antolatzea pentsatzen ari dira. Obren gaiak landuko direnez, jakin nahi nuke ea lehendakariari edo jabe bati eskuordetze-idatzi bat aurkez diezaiokeidan, gai-zerrendako puntu bakoitzean oharrak edo zehaztapenak eginez, nire botoa arrazoituz. Horrela, ez nuke batzarrera joan beharrik izango, eta nire iritzia Jabeen Batzarrari helaraz niezaioke, etxejabe moduan.</p> <p>Jakina, aukera hori baliozkoa da; izan ere, arrazoi pertsonalengatik batzarrera joan ezin diren jabeek beren iritzia eta bozketaren zentzua jasota uzten duten formuletakoa bat da. Gogoratu behar da jabeen batzar batera joateari dagokionez aukera desberdinak daudela. Jabeen batzarrera egiten denean, gerta daiteke jabea bera agertzea batzarrera, jabeak bere ordezkari hiru garren bati ematea, jabeak idatzi bat ematea lehendakariari eskuordetzea aitortuz edo beste jabe baten esku uztea bere botoa. Ez da ahaztu behar eskuordetzea lagatzen duen jabeak bere idazkian jaso dezakeela puntu bakoitzean bozkatzen duena; horretarako, idazkian berariaz adierazi beharko du, eta gai-zerrendako puntu bakoitzean jarriko du bozkatzen duen edo ez, zer bozkatzen duen edo abstenitzen den.</p> <p>Gomendioa. Garrantzitsua da Jabeen Batzarrera joatea, pertsonalki edo ordezkari utziz. Izan ere, funtsezkoa da jabeakide guztiek deialdian adierazitako gai-zerrendako puntuetara buruzko iritzia ematea.</p> <p>ASOSIA GOXOR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak martitzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak **Elaija Zubiaurreri**, 10 hilabete bete dituelako. Eta, baita gurasoei ere, aitxixa eta amamaren partez. Zuen zain gaude etxean.



Zorionak, ama eta amama **Petra**, joan zen ostiralean 100 urte bete zenituelako. Egun zoragarria igaro genuen denok elkarrekin.



Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitetz harpidedun!

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG IKB63401CB INDUKZIOA



399 €

- Indukzioko 3 indar gune
- 60zm. Maxisense
- Hob2Hood Timer
- Etenaldiaren funtzioa
- Markorik gabe
- Easy Frix
- Estra laua
- Gune erraldoia, 32 zm
- Funtzionamendu digitala

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

24 BARIKUA

18:30 Greba Feminista Orokorrerako argazkia ateratzea. Narrutsikek deituta, Maalako parkean.

19:00 Antzerkia: 'Amarau'. Lanku taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

19:00 Hitzaldia: 'Mujeres mayores y violencia de genero'. Iratxe Herrero soziologo, gerontologo eta kriminologoak emango du, Mendaroko udaletxeko aretoan.

20:00 Elkarretaratzea. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

25 ZAPATUA

09:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian.

11:00 Udal Musika Bandaren kalejira.

13:00 Elgoibarko Udal Musika Bandaren Santa Zezilia Eguneko kontzertu berezia.

1. *Carmen* (marcha del toreador). G. Bizet.

2. *1405. El incendio de Berna*. M. Burki.

3. *Danzon Nº2*. A. Marquez.

4. *Nino Bravo Medley*. Arr. Iñaki Urkizu (Serafin Zubirik abestuta)

13:00 Zapata gorriak, indarkeria matxistaren kontra. Mendaroko herriko enparantzan.

16:30 Sorpresa, Jubilatuen Biltokian.

20:00 Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguneko manifestazioa. Kalegoen plazan.

Segidan, 'Bizirik eta aske' abestia aurkeztuko du Musika Eskolako koruak, zuzenean. Maalako parkean.

20:45 Kontzertua: Alarma morea taldearekin. Maalako parkean.

26 DOMEKA

11:00 Meza berezia, hildako jubilatuen alde. San Bartolome parrokian.

18:00 Filma: 'Las dos caras de la justicia'. Mendaroko Udalak antolatuta, San Agustin kulturgunean.

27 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa saioa: 'Bazen behin indarkeriarik gabeko neskato bat...'. Loredi Salegik gidatuta, Lilan.

18:30 Desfibriladoreak erabiltzen ikasteko ikastaroa, Mendaron. Udalak antolatuta. Izena emateko: erregistroa@mendaro.eus

19:15 Hitzaldia: Joseba Azkarraga eta Txema Matanzasekin. Sarek antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatur tailerra. Arantza Urretabizkaiaren 'Azken etxea' liburua landuko dute.

1 BARIKUA

17:00 Gaitu ekimenerako grabazioak, Mendaron. In Leikek antolatuta, jubilatuen lokalean.

18:00 'Egin zenutelako gara'. Elgoibarko Historia Sozialari buruzko ekitaldia. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta, Herriko Antzokian.

18:30 Kalez kaleko erromeria, EinGO taldearekin, Mendaron. Udalak antolatuta.

AZKEN ZAPATUKO FERIA

25 ZAPATUA

09:00 Baserriko produktuen eta Artalde artisau taldekoen azoka. Kalebarren plazan.

11:00 Dislegi Debabarrena elkartekoek txosna zabalduko dute, eta pintxoak salduko dituzte Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin eginda.

12:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa. Kalebarren plazan.

GREBA FEMINISTA

30 EGUENA

09:15 Elkartasun piketeak, herriko zaintza guneetan.

11:00 Kafe tertulia. Maalako parkean.

12:30 Kalejira aldarrikatzailea, Kalegoen plazan hasita.

14:00 Bazkari autogestionatua eta musikaz girotutako bazkalostea. Maalako parkean.

19:00 Manifestazio zaratatsua, Kalegoen plazan hasita.

Zinea Herriko Antzokian



'Alimañas'

18, zapatua:

19:00 / 22:15

19, domeka: 19:00

20, astelehena: 21:00

'La patrulla canina'

26, domeka: 16:30

'Creatura' (Ongarri)

29 eguaztena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

AZAROA

24 BARIKUA

25 ZAPATUA

26 DOMEKA

27 ASTELEHENA

28 MARTITZENA

29 EGUAZTENA

30 EGUENA

Egunez

Garitaonandia

Barrenetxea

Barrenetxea

■ Fernandez

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

ABENDUA

1 BARIKUA

■ Ibañez

2023 urte guztian, gauez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar) - 943 203 052

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Eta, Debabarrean zer?

Eibar, azaroak 30, San Andres azoka.

Azaroaren 30ean San Andres Eguna ospatuko dute Eibarren, eta egun horretarako egitarau zabala prestatu dute eragileek. Baserritarren eta artisauen postuak egongo dira goizean goizetik, eta egunean zehar kultur ekitaldi ugari egongo dira.

DANOBOATGROUP

**euskaraz
izango
Gara**

HARTU PARTE
DANOBOATGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNA
OSPATZEKO LEHIAKETAN!

PARTE HARTZEKO
AZKEN EGUNA

2023ko abenduak 3 | 00:00h



info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html


DANOBOATGROUP / DANOBAT / GOIMEK / IDEKO / LATZ / SORALUCE



LAGUNAK
colchonería textil hogar

**Eta zu zer nahiago dituzu
koralina-izarak ala franelazkoak?**

**Etorri Lagunak-era eta
begiratu zein duzun gustukuen.
Neguari aurre egiten lagunduko
dizuen aukera paregabea
topatuko duzu bertan!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Euskaltzain osoa

Anjel Ugarteburu



Aste honetan, azaroaren 25ean, egingo du Andresek **euskaltzain** oso izendapenari dagokion hitzaldia bere jaioterrian, Getariako udaletxean.

Urte askotan lankide eta adiskide izan dudanaren aurkezpenik egin beharrik ez daukat, jakina baita bere bizitzako zatirik handiena Elgoibarren eman duela irakaskuntza eta euskalgintza lanetan buru-bihotz. Dena den, bere *curriculum*-aren xehetasunak *euskaltzaindia.eus* gunean, **euskaltzain osoak** atalean ditu, jakin nahi dituenak.

Ni Eibarko ikastolan nenbilen 1972tik eta Elgoibarrera ezkondu nintzenean, 1975ean, ezagutu nuen Elgoibarko ikastolan lanean ziharduen taldea, Santa Ana kaleko 7an ostatu hartzen zuena, batez ere. Baita hara hurbiltzen ziren beste hainbat andereño eta maisu ere. Ilusioz blai ikusten nuen taldea, haiengana hurbiltzen nintzenetan.

Emiliok lagako zuen hutsunea betetzeko aukera ikusi eta hala adierazi nion une hartan ikastolako zuzendari zen Andresei nire asmoa: bizi nintzen herrian bertan irakasle izatea gustuko izango nuela. Harrezkero hemen izan da nire jarduna, lankide giro jatorrean.

Ezaguna da irakasleon artean *hiru Santxo*en metafora. Lehen urteetan, ilusioz gainezka, *Santxo indartsua* (*azkarra*) nagusitzen da. Indartsu sartzen gara, arazo eta traba guztiak txiki iruditzen baitzaizkigu gure ilusio mugagabearen aurrean. Gero, bizpahiru urte pasata, *Santxo zuhur edo argiaren* txanda etorri ohi da. Eskarmentuak erakusten du pausoak bata bestearen atzetik eman behar

direla, ez denak batera. Hirugarren Santxoa ere ezaguna da: *Santxo Pantza*. Horrelakoak ere badira, hasierako ilusioa ogibide soil bihurtzea ere gertatzen da eta.

Ez dut nik Pantzarik ezagutu hainbat urtetan mintegikide izan ditudan lagunetan.

Eibarko ikastolan material berrien sorkuntzan hasitako bideak jarraipena izan zuen Elgoibarko ikastolan zein Institutuan. Bereziki azpimarratu nahi dut gure mintegiburu zen Andresek testuliburu berrien sorkuntza lanean egindako koordinazio eta dinamizatzaile lana. **Egile ezezik eragile egokia** ere izan zen eta hala sortu genituen, 20 urtean zehar, oraindik ere erabiltzen diren testuliburuak.

Gero, EIMA (Euskaraz Irakasteko Materiala) programan egin ditu, ohiko xehetasun eta zehaztasunez, irakaskuntzak zein komunikabideek beharrezko dituzten zuzenketak; baita, Euskaltzaindiak urteetan zehar euskara estandarerrako emandako arauen bilduma ere. Gure Andres izan da, hain zuzen, *Euskara Batua*ren *Eskuliburu*ko (EBE) batzordearen buru.

Euskararen normatibak beharrezko dituen arauen bilduma izan da urte askotako lanaren emaitza eta arlo horretan egindakoak asko zor dio Andresei.

Ikastolan hasi, Institutuan jarraitu, testugintzan iraun eta, Euskaltzaindiaren esanetara, euskara gaur eguneko beharretara bideratzen egindako lanak merezi zuen **euskaltzain osoaren** aitortpena, horixe bera izan baita Andres nik ezagutu dudan urte hauetan guztietan.

Zorionak!



ATXUTXIAMAİKAREN NEGUKO OPORRALDIA 2023

TXOKOAK (HH2-3 ETA HH4-5)

Ordutegia eta egutegia:

09:00 - 13:00

1. txanda: abenduak 26-29

2. txanda: urtarrilak 2-5

ABIXADAN (LH1-3)

TXOKOAK:

09:00 - 13:00*

1. txanda: abenduak 26-29

(Osagai galduaren bila ekintza barne)

2. txanda: urtarrilak 2-5

(*Urtarrilaren 3an, Getariara egun-pasa barne)

EKINTZA SOLTEAK:

Abenduak 27:

"Osagai galduaren bila" pista-jokua

Urtarrilak 3:

Getariara egun-pasa.

ALDENIK ALDEN (LH4-6)

Masterchef eta urte amaierako festa.

Abenduak 29, 17:00-21:00

Egonaldia Elgoibarren

Urtarrilak 2, 10:00-urtarrilak 3, 17:00

IZEN EMATEA:

Azaroaren 23tik abenduaren 10era

- On-line izena emateko QRan
- www.elgoibarkoizarra.eus webgunean
- Aurrez aurre
 - Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen bulegoan (Aita Agirre 3, 3 ezkerre)

izen ematea



labur.eus/oporraldia

**UDALAREN
DIRULAGUNTZAK**

Eskaerak: azaroaren 23tik abenduaren 12ra
www.elgoibare.eus-en edo H.A.Z.en
(Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan)

Antolatzailea:




Babeslea:



Laguntzaileak:



Egin zenutelako gara!



1950-1990

Elgoibar herri euskalduna izateko 40 urteko herri-ahaleginaren historia kontatzera goaz, eta historia horretako protagonistei egin zutena eskertuko diegu.

Abenduak 1, ostirala - Herriko Antzokia - 18:00

GONBIDAPENAK ESKURATZEKO: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 / Aita Agirre kulturegunea 3, 3 ezkerre